




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA

GRADU AMAIERAKO LANA

# Bidaia partekatzeko ekimen ezberdinen analisia



Egilea: Maria Escudero Apezetxea

Zuzendaria: Erlantz Allur Aranburu

2015eko ekaina





**Maria Eskudero**  
@MariaGoizueta

2013ko abendua

**@erasmus\_Eire** Azkenean kaso egin  
nizuen eta **@BlaBlaCar\_es** bidez  
buelatu nintzen Alicantetik  
Salamancara. Aurreztutako denbora eta  
diruarekin Madril bisitatu nuen.**#Retiro**  
**#Bidaiatu+Aurreztu**



## Nire esker ona

Lanarekin hasi baino lehen eskerrak eman nahi nizkieke proiektu hau egiten lagundu duten guztiei.

Lehenik eta behin nire gurasoekin hasi nahiko nuke. Benetan eskertu nahi diet proiektua egitean emandako laguntzagatik, bai nire purrustak entzuteagatik bai ikerketan parte hartzeagatik. Izan ere, nire aita 4 orduz egon zen Goizuetara egiten diren joan etorriak apuntatzen, nik datu horiek eduki nitzan.

Beste aldetik galdetegia erantzun zuten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet, izan ere erantzunik gabe ez nuen daturik edukiko analisi enpirikorik egiteko.

Goizuetako Andres Narbarte "Xalto" eskolako 6.mailako ikasleei eta Eva Elizegi irakasleari ere eskertu behar diot, ordu betez egon baitziren egin den ikerketarako datuak apuntatzen. Honi lotuta, Evak, ingeleseko irakaslea izanik, kutsaduraren inguruko hiztegia landu zuen bere ikasleekin.

Bukatzeko, nola ez Erlantz Allur tutoreari eskerrak eman nahi dizkiot, lan honetan bideratzeagatik eta laguntzeagatik.



# Aurkibidea

## 4

### **Alderdi teorikoa**

Elkarlaneko ekonomia eta kontsumoa  
CarSharing eta Carpooling kontzeptuen bereizkuntza

## 14

### **Estatu mailako ekimen garrantzitsuenen azterketa**

BlaBlacar  
Amovens  
Carpooling

## 39

### **Alderdi praktikoa**

Galdetegia osatzeko metodologia  
Analisi enpirikoaren emaitzak  
Goizuetako ikerketa

## 56

### **Ondorioak**





## Helburuak

Lanaren lehenengo atalean ekonomia kolaboratiboa eta kontsumo kolaboratiboa aztertzen saiatuko naiz. Horretarako, alde batetik ekonomia modelo honen lau zutabeak zeintzuk diren azalduko dut, segidan adibide batzuk jarritz. Horrez gain, 4 motor bultzatzaileak zeintzuk diren azaltzen ahaleginduko naiz.

Bigarren atalean Carsharing eta Carpooling kontzeptuak zertan ezberdintzen diren azaltzen saiatuko naiz. Horrez gain, autoa partekatzeko estatu mailan dauden hiru ekimenik erabilienak banan banan aztertzen ahaleginduko naiz. Denak berdinak al dira? Zertan ezberdintzen dira?

Atal praktikoan batetik galdetegi bat osatu eta honen emaitzak aztertu nahi ditut, gizarteak ekimen hauen inguruan zenbat dakien jakiteko helburuarekin. Bestetik Goizuetan, nire herrian, autoa partekatzeko ekimen batek funtzionatuko lukeen ala ez aztertu nahiko nuke.

# 1 SARRERA

Lan hau Espainiako estatu mailan bidaia partekatzeko dauden ekimenen inguruan da. Lehenik eta behin, bidaia partekatzeko inizatiba hauek zein ekonomia mota duten oinarrian aztertuko da.

Segidan, estatu mailan dauden hiru ekimen erabilienak aztertu dira. Beraien jatorria, nola funtzionatzen duten, ezaugarri bereziak eta azkenik beraien web orriko atal batzuk azaldu direlarik.

Ondoren, hiru hauen arteko konparaketa taula bat ere sortu da, irudi batekin hiru plataformen arteko ezberdintasunak ikusteko. Hona arte dauden puntuak atal teorikoaren barne sartzen dira.

Atal praktikoari dagokionez, hau bi zatitan banatu da. Lehenengoan galdetegi bat prestatu eta bertako erantzunak analizatu dira. Bigarrengoan aldiz, Goizueta herriko joan etorrien ikerketa bat egin da eta hemengo datuak ikusirik ondorio batzuk atera dira, autoa partekatzeko ekimenen inguruan.

## 2 ALDERDI TEORIKOA

### Elkarlaneko kontsumoa eta ekonomia kolaboratiboa

Gaur egungo gizartearen kontsumo ohiturei erreparatuz, ikusi dezakegu kapitalismoaren ondorioz kontsumo gizarte batera iritsi garela; non gain-kontsumoak gizarte mailakatu bat sortu duen, eta pixkanaka, mailek elkarrekin dituzten aldeak handituz joan diren. Honeri irtenbidea eman nahian, ekonomia tradizionalaren alternatiba gisa ekonomia kolaboratiboa sortu da. Jarraian kontzeptu berritzaile hau eta honekin batera doan elkarlaneko kontsumoa azalduko ditugu, Albert Cañigüeral, “Vivir mejor con menos” liburuan (Cañigüeral, 2014) erabili duen eskeman oinarrituz. Albert Cañigüeral, estatu mailan ekonomia alor honetako aditu ezagunena da.

Ekonomia kolaboratiboa, ekonomia kapitalistaren edota ekonomia tradizionalaren ordezkoko edo alternatiba bat da.. Gaur egungo gizartearen ohiturei erreparatuz ikusi dezakegu gain kontsumoa oso agerikoa dela, baina jakina da, gehiago kontsumituagatik ez dugula zertan hobeto bizi. Gizarte kapitalistak kontsumitzea du helburu, ez kontsumoaren bidez gozatzea. Ahalik eta baliabide gutxien erabiltzea izan behar luke helburu, horrela baliabide horiek beste zerbaite lortzeko erabili ahalko lirake. **Partekatu, berrerabili, birziklatu eta kolaboratuz** gero, helburua lortzeko baliabideak askoz ere gutxiago izango dira. Aipatutako kontzeptuak ez dira berriak, betidanik entzun ditugun hitzak dira eta baita praktikan jarriak ere. Hauexek dira hain zuzen ere **Ekonomia Kolaboratiboaren** oinarrian dauden ideiak. Ekonomia tradizionalaren oinordeko bat berau.

Kontsumitzaileak aipatutako lau ideia horiek praktikan jartzen ari dira beraien ekonomia begiratzeko asmoarekin, hori dela eta sortu da ekonomia kolaboratiboaren garaia. Ekonomia modu berri hau partekatzean, berrerabiltzean, birziklatzean eta kolaboratzean oinarritzen da, sare sozialetan oinarrituz beti ere

Lehen esan bezala, 4 ideia nagusi horiek, partekatu, berrerabili, birziklatu eta kolaboratu ez dira berriak. Betidanik partekatu da umeen arropa, herrian lan asko egin izan dira auzolanean, udaletxeak ordaintzeko dirurik ez duenean esaterako; nork ez dio

mugikor zaharra aitari edo amari eman? Hori ere berrerabiltzea izango litzateke.... Ekintza hauek oro har gehiengo zabal batek egin izan ditu. Ekintza hauei internet gehituz gero, hauek ezezagunekin egiteko aukera dago. Hori dela eta, ekintza hauek burutzeko publikoa ikaragarri zabaltzen da, **kontsumo kolaboratiboa/elkarlaneko kontsumoa** sortuz pertsona hauen artean. Kontsumo kolaboratiboak ondasunak erabiltzeko aukera eta hauetaz gozatzeko aukera izateari ematen dio garrantzia, ez hauek edukitzeari. Ondasunen jabetasuna izan beharrean lorbidea izatea da gakoa kontsumo modu honen aburuz. Albert Cañigueralek dioen moduan, ez da helburua ezer ez erostea, dena ez erostea baizik.

Elkarlaneko kontsumoaren ideia geroz eta indar handiagoa hartzen ari da, horren lekuko Time aldizkariak publikatutako artikuluan dioena. Aldizkariak, munduko arazoan soluzioak emango dituzten lehenengo 10 ideien artean sartu zuen elkarlaneko kontsumoa. (Walsh, 2011)

Espanian What's Mine Is Yours (Botsman R. R., 2010) liburua plazaratu ondoren hasi zen ideia honen inguruko mugimendua, 2010.urtean hain zuzen ere (Dans, 2015) .Nahiz eta oraindik goiz den, enpresa handiak dagoeneko hasi dira ideia berri hau kontuan hartuz lan egiten. Adibide modura, Gerard Costa irakasleak Cinco Días aldizkarian duen blogean aipatu moduan, (Costa, 2015) Patagon enpresa dagoeneko hasi da Ebay enpresa mundialarekin elkarlanean. Honela, Patagon enpresako produktuak 2. eskuko produktu gisa saltzeko aukera daukate erosleek, ebay eta patagon enpresen elkarlana dela medio.

Albert Cañigueral autoreak esaten duenaren arabera, Ekonomia kolaboratiboa lau zutabetan banatu daiteke.

### 1-kontsumo kolaboratiboa/elkarlaneko kontsumoa


Pertsonen arteko elkarlana dauka oinarri, internet eta sare sozialez baliatuz. Hau da, online sortzen diren harremanak offline gauzatzen dira ondoren. Zutabe honetan partikularren arteko harremanak sartzen dira, *Peer-to-peer* (P2P). Beraien artean oporretako autoa edota oporretarako apartamentua alokatzera, kotxeko bidaia partekatzea ....

### 2- DIY( Do it yourself) ekimena. “egin ezazu zuk”

DIY edo *egin ezazu zuk*, mugimendu kulturala da. Underground kultura musikala du sorburu eta mugimendu hau kultura sortu eta zabaltzeko modu bat bilakatu zen 70.hamarkadan. Mugimendu hau garaiko kultura nagusiaren alternatiba bihurtu zen, gizarte kapitalistako prozedurak saltatzen zituzten, ohiko prozedura ekidin nahian. (Gallego Pérez, 2009) Ideia honek izugarrizko zabalkuntza izan du aparatu digitalen eta interneten ondorioz. 70. Hamarkadan musikarekin zegoen lotua gehienbat, baina gaur egun, brikolajea, sukaldaritza, kotxeen muntaia... denetik aurki daiteke mugimendu honen inguruko orrialdeetan.

DIY ekimenaren xedea ondasunen bat erosi beharrean, norberak egitean datza, etxean dituen baliabideekin. Horretarako interneten orrialde bat baino gehiago daude, produktuak nola egin azaltzen dituztenak. Gehienak brikolajea eta sukaldaritzaren ingurukoak

dira.



<https://www.facebook.com/DoltYourselfOfficial/photos/a.155220287954374.39447.154222704720799/545649765578089/?type=1&theater>

### 3- Kapital banatua. Crowdfunding

Crowdfunding-a 2010ean iritsi zen Espainiara eta hizkuntza askok maileguan hartu duten hitza da, izan ere kontzeptu berritzaile bat da. Crowdfunding-a finantzaketa kolektibo modu bat da, sareko plataformen bitartez gauzatzen dena. (Grupo Spri, 2014)Proiektuaren sortzaileek, beraien lana ondo definitu eta zabaldu behar dute, sare sozialak eta plataformak erabiliz, horrela internautek sarean crowdfunding-a ahalbidetzen duten orrialdeetan nahi duten proiektua aukeratzeko dute, bakoitzak bere interesen arabera, eta nahi duen aportazioak/dohaintzak egiten ditu, proiektu hori lagundu eta aurrera atera dadin. Estatuan hainbat plataforma daude crowdfunding-aren inguruan, batzuk aipatze arren, <https://www.sociosinversores.es/>, <http://www.verkami.com/>, <http://www.lanzanos.com/>, Finantzaketa modu hau, subentzio eta mailegu tradizionalen ordezkotzat bilakatu ari da gaur egun. Gregorio López Triviñoren iritziz, Lánzos plataformako langilea berau, (Grupo Spri, 2015) jasaten ari garen krisiak lagundu egin dio crowdfunding-aren zabalkuntzari. Gaur egun sarean aurki daitezkeen proiektu gehienak zinea eta musikaren atalekoak dira, adibidez gisa aipatu genitzake *extremoduro* musika taldea, honek bere lehenengo diska crowdfunding-aren bidez lortutako diruarekin plazaratu zuen edota *Kerobia* euskal musika taldea. Euskal App batek ere crowdfunding-a erabiliz hasi du bere bidea, WIMy App-ak ain zuzen ere. Aplikazio hau egunerokotasunean galtzen ditugun giltzak edota diru zorroa ahal den azkarren aurkitzeko helburuarekin sortu dute. (Grupo Spri, 2015)

*El economista* aldizkariak 2014an argitaratutako datuen arabera, 2012. Urtean AEBetan 1.600milioi euro mugitu ziren Crowdfundig bidez, Espainiar estatuan berriz 17-30 milioiren artean kokatzen da zifra.. (Peréz & Solero, 2014)

### 4- Jakintza Irekia

Jakintza irekia, Ingelesez *Open knowledge* edo gaztelaniaz *Conocimiento abierto* elkarlaneko ekonomiaren laugarren atala da. Jakintza irekia izan dadin, hainbat

ezaugarri bildu behar ditu, honako hauek azaltzen ditu *Open knowledge Foundation* orriak: (Open Knowledge)

-Erabilgarria eta eskuragarri egon behar du informazioak bere osotasunean. Hau da, ezin dute proiektu baten atal batzuk eskuragarri egon eta bukaerako azalpenak lizentziaren menpe.

-Berrerabilgarria eta birbanatu daitekeena izan behar du informazioak.

-Hortaz aparte, partaidetza unibertsala eduki behar du. Hau da, nahi duenak erabili, berrerabili eta partekatu dezakeena, inor baztertu gabe.

Hauek dira hortaz, Ekonomia kolaboratiboaren lau zutabe nagusiak. Jarraian jendeak orokorrean ekonomia mota honekin dituen lehen kontaktuak ze ekimen edo mugimendurekin ematen dituen azalduko dira, izan ere uste baino ohikoagoa baita elkarlaneko kontsumoaren erabilera.

## Elkarlaneko kontsumoaren hainbat adibide

### Couchsurfing

Elkarlaneko kontsumoaren esponente garrantzitsuenetako bat dugu *Couchsurfing*-a. *Couchsurfing*, 2004 ean AEBtan sortutako enpresa bat da eta etxeko sofa (couch) muxu-truk partekatzea bultzatzen du. Anfitrioiak bere etxeko sofa edota kasu askotan ohea eskaintzen du debalde enpresak duen webgunean, apopiloek beraiei gehien interesatzen zaien “sofa” aukeratzen dute eta kontaktuan jarri eta apopilo joaten dira, gaua muxu-truk pasaz. Enpresa honek web orrialdea izateaz gain mugikorrenzat aplikazio bat ere badauka, bai *Android* bai *iPhonentzat* ere. Mugimendu honen inguruko zifrak ikaragarriak dira, *Couchsurfing* orrialdearen arabera dagoeneko 200.000 hiritan aurki daiteke ekimen honen bidez lo debalde egiteko aukera. 10 milioi kide ditu eta 520.000 gertakizun bideratu ditu.

Ostatu arloarekin zerikusia duen beste mugimendu garrantzitsu bat **Airbnb** da. Honen funtzionamendua ere aurrekoaren berdina da, baina kasu honetan logela edota etxebizitza osoa alokatzen da. Hau da, ordaindu egin behar da, *Couchsurfing*-a dohain den bitartean. Honek ere badauka mugikorrenzat aplikazioa, mugikorretik etxea mailegatzeko aukera ematen duena.

## Bizikleta mailegatzea, Bicing

Bizikleta mailegatzeko aukera gaur egun hiri askotan aurki daiteke. Urte batzuk badira bizikletak mailegatzeko aukera inguruko hirietan dagoela, esaterako Donostia, Bilbo edota Iruñean.

Esaterako, Donostiako zerbitzuak 2008an izan zuen hasiera, Dbizi lelopean. Gaur egun ere hortxe darrai eta nobedade gisa esan daiteke orain bizikleta elektronikoak aurki daitezkeela maileguan hartzerako orduan. Honen helburua *Dbizi* atariak dioenez, lehendik zeuden barrerak, adina, orografia .... saihestea da.

## Musika partekatzea. Spotify

Spotify musika dohainik entzuteko sare sozial bat da. Erregistratuz gero, milioika kantu entzun daitezke deialde. Jendeak bere musika parteka dezake sarean horrela entzun nahi duenak ez du diskoak erosi edo abestiak deskargatu beharrik. Interesatuak musikarako lorbidea dauka ondasunaren jabetasuna izan gabe.

## 4 motor bultzatzaile

Jendearen ohituren aldaketa pixkanaka izan den arren, 3 motor bultzatzaile izan dira nabarmenenak ekonomia modu tradizionaletik elkarlaneko ekonomiarako aldaketan Albert Cañigüeral adituaren ustez(Cañigüeral, 2014):

### 1-Internet eta kultura digitala:

Cañigüeralek 3 fase banatzen ditu kultura digitalera iristeko bidean.

Lehenengo fasean internet-a informazioa jasotzeko erabiltzen da. Erabiltzaileek ez dute daturik/informaziorik partekatzen. Bigarrenengoan aldiz, informazioa jaso eta sortu egiten da. Hartu emanak sortzen dira. Hauen adibide Facebook, Spotify, Wikipedia... Azken fasean, hirugarrenean, Interneten egiten duguna, hau da hartu-eman horiek webguneetatik ateratzen dira. Plataforma digitalek elkarlaneko ezagutza gauzatzen laguntzen dute(online), baina interakzioa espazio fisikoan ematen da(offline).

Eboluzio honetan argi ikusten da interneten bidez aldaketa kulturala eman dela, kultura digital batean bukatu arte.



## 2-Eboluzio teknologikoa.

Bigarren puntu hau batez ere mugikor adimendun edo smartphonetan oinarritzen da, izan ere, hauek asko erraztu dute kontsumo kolaboratiboaren bilakaera. Mugikor mota hauek gure gizartean sartu zirenetik egun guztian zehar sarera konektatuak egoteko aukera daukagu, ordenagailu parean egon gabe.

Hauek, sareko plataformen erabilera bizkortu dute. Gainera aipatu behar da, kontsumo kolaboratiboko enpresa askok mugikorrentzako aplikazioak sortu dituztela, orduan eta gehiago azkartuz barauen erabilera.

## 3-Krisi ekonomikoa

2007an hasitako krisiak aldaketak azkartzea ekarri du, izan ere krisiek beti balio izan dute jendea ernatzeko. Alberten aburuz, krisia= aldaketak. Hortaz, oraindik jasaten ari garen krisi honek eragin handia izan du ekonomia esparru honen bilakaerarekin.

Krisiaren ondorioz familien eta norbanakoen erosteko ahalmena murriztu egin zen, beraz, askok gastuak gutxitu beharra izan zuten. Familia askok gastuak murriztuagatik lehen egiten zituzten ekintzekin jarraitzeko, elkarlaneko kontsumoaren inguruko zerbitzuak erabili dituzte . Oporretara joateko garaian, hotel batera joan beharrean etxe bateko logela alokatuz. Bidaiatzeko garaian, kotxeko bidaia partekatuz, horrela gastuak murriztuz esaterako.

## 4-Kontzientzia ekologikoa

Albert Cañigueralek ez du puntu hau kontuan hartzen, ekonomia kolaboratiboaren motor gisa, baina niri zentzuzkoa iruditu zait ekonomia mota honen beste bultzatzaile bat bezala ezartzea.

Agian ez du besteek bezainbesteko indarra, baina batez ere *carpooling*-aren inguruan eragina duela esango nuke. Kotxea partekatzeko unean, garraio publikoarekin bezala CO<sub>2</sub> gasen isurketa murriztea beste helburuetako bat da, gastuak murriztearekin batera.

## Mugikortasun partekatua

Kontsumo kolaboratiboko sektorerik zabalduena dela esan daiteke mugikortasun partekatua, ekonomia kolaboratiboarekin lehenengo kontaktua askok eta askok praktika honen bidez izaten dute.

Segidan mugikortasuna partekatzeko mota ezberdinak aztertuko dira, jarraian hauetako batean zentratuko garelarik, Carpooling-ean hain zuzen ere.

## Carsharing

Carsharinga 1987an sortu zen Suitzan eta gaur egun Europa guztira zabaldua dagoen ekintza da eta kotxe berdina pertsona ezberdinen artean partekatzean datza (Wagner & Shahenn, 1998). Hemen bi aukera daude, autoa partikular batena izatea, honen adibide gutxi daude, bat aurkitu da Gipuzkoan, edota enpresa bat izatea bere jabea, orokorrean honelako zerbitzuak dira. Car sharingeko erabiltzaileek autoa ordu batzuetan zehar erabiltzen dute, lanera joateko, supermerkartura... eta egindako kilometro eta bidaiak iraun denboraren arabera ordainduko du. Izan ere, Herbereetan egindako ikerketa batean ikusi zen bertan batz bestea 72 minutu erabiltzen zutela autoa egunean. (Meijkamp, 1998) Autoa partekatzeko zerbitzua erabiliz ordea, ez du matxuraren edo autoaren aseguruaren gasturik izanen erabiltzaileak.

Wagner eta Shahennen ustetan ezaugarri hauek eduki behar ditu autoa partekatzea bultzatzen duen enpresa batek:

Garraioarekin lotutako guneetan ezarri behar da, gasolindegietan, garraio publikoko geltokietan... Teknologiaren aurrerapenak kontuan izan behar dira. Txartelarekin ordaindu edo autoa irekitzeko, horrela erabiltzaileek denbora gutxiago pasako dute adibidez. Hauetaz gain, internetarekin ahal diren pausu guztiak egiteko aukera eman behar du zerbitzuak. Erreserba online egitea, autoa aukeratzeko aukera izatea...

Estatu mailan, Carsharingen adibide bat baino gehiago aurki ditzakegu, esaterako:

SocialCar Espainia mailan ,RespiroMadrid Madrilen, Bluemove: Sevilla edota Avancar Bartzelonan

Gipuzkoan ere badugu mugikortasun mota hau bultzatzen duen mugimendu bat. *Lurraldekar* da berau. Gipuzkoako 8 herri daude mugimendu honetan sartuta, Bergara, Donostia, Irun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Urretxu eta Zarautz. Hauen helburua hiritarren artean kotxea partekatzea da. Autoa gutxi erabiltzen dutenek alokatzeko jartzea eta behar dutenek beharra dutenean beste herritarren autoa alokatzeko aukera izatera. Horrela autoa geldirik egon beharrean, behar duen herritar batek erabiliko du, kotxearen jabearekin gastuak partekatuz beti ere.

Mugimendu honetan interesatuek [www.lurraldekar.eus](http://www.lurraldekar.eus) orrian sartu dezakete eta beraien eskaria erregistratu; bai beraien kotxea errentan uzteko edo kotxe baten beharra dutelako.

Gisa honetako beste ekimen bat *eusko car sharing* elkarteak bultzatzen duen *ibilkari* deiturikoa da. *Ibilkari-k* autoa partekatzeko zerbitzua eskaintzen dio Eusko car sharing elkarteko bazkide den orori. Ekimen hau Bilbon dago kokatuta, eta autoak ere momentuz bertan bakarrik aurki daitezke.

Zerbitzu honen funtzionamendua oso sinplea da. Hilabeteko kuota baten truke, nahi den unean autoa erreserbatu eta erabiltzeko aukera eskaintzen du. Bazkide bakoitzak identifikatzen duen txartel bat dauka. Hau bera erabiliko da kotxeak irekitzeko eta egindako kilometroak kalkulatzeko. Kilometro bakoitzak kostu bat dauka, bertan aseguru eta erregaiaren kostua sartuta daudelarik.

Erreserba egin ondoren, autoa aparkatuta dagoen lekura joan eta zerbitzuaz gozatzea bakarrik geratuko litzateke.

Zerbitzu honetan ez dira partikularren autoak partekatzen, Eusko car sharing elkarteak eskuragarri dituen autoak baizik. Agian batzuek car sharinga eta car rental kontzeptua nahasiko dituzte, baina beraien arteko ezberdintasuna oso nabarmena da. Lehenengoan ordu batzuetarako alokatzen da autoa, aldiz bigarrean bi hiru egunetarako. Oporren kasua da bigarren honen adibiderik garbiena. (Wagner & Shahenn, 1998)

Carpooling ingelesetik datorren hitz bat da eta bidaia konpartitzen datza. Carsharing-ean autoa partekatzen zen moduan, hemen egindako bidaia eta honek sorturiko gastuak partekatzen dira. Estreinekoz II.mundu gerran hasi ziren bidaia partekatzea sustatzen, petrolio eta kautxuaren eskasia zela eta. Geroztik, 70.hamarkadan ere izan zuen lekurik, petrolioaren krisia medio. Orain gutxi ere, Beijingo 2008ko joku olinpikoetan saiatu ziren bidaia partekatzeko ekimena sustatzen, gidatzeko murrizketen harira. Gaur egun, bidaia partekatzeko ekintzaren sustapena garraio iraunkorra izatearekin lotzen da; auto ilarak murriztu, kutsadura, trafiko zarata... (Goetz, y otros, 2012)

Bidaia partekatzearen helburua ibilbideko gastuak murriztea da, baina bidaiaren kostua partekatzeaz aparte, kutsadura ere murriztu egiten da praktika honekin, izan ere martxan dagoen auto kopurua gutxitzen baita. Autoaren jabeak zer ibilbide egingo duen argitaratzen du sarean. Horretarako plataforma ezberdinak daude, enpresa bakoitzak bere web orrialdea dauka, baita mugikorrentzat aplikazioak ere. Beraz, bidaiaren eskaintza web orrialdean dago, bidaiaren hasiera ordua, hau da, abiatzeko ordua zehaztuta. Hortaz aparte, gidariak prezio bat jartzen dio bidaiari, distantzia, ordainleku eta denboraren arabera. Bidaia horretan interesatutako orok erreserbatu dezake bere eserlekua, behin erreserbatuta gidariarekin kontaktuan jartzeko datuak aurki ditzake plataforman eta kontaktuan jarriko litzateke bidaia hori egin nahiko balu. Horrela, elkargune bat finkatuko lukete eta bidaia elkarrekin egingo lukete, bidaiariak zehaztutako kopurua gidariari ordainduko diolarik. Azalpen hau laburpen bat besterik ez da, jarraian estatuan aurki daitezkeen ekimenik erabilienak aztertuko dira, *Blablacar, Amovens eta Carpooling* hurrenez hurren.

### 3.ESTATU MAILAKO EKIMEN GARRANTZITSUENEN AZTERKETA



2006an Parisen sortu zen enpresa baten web orria dugu BlaBlaCar, Comuto S.A.S enpresarena hain zuzen. Comuto enpresaren sortzaileak Frederic Mazzella, Francis Nappes eta Nicolas Brusson ditugu. Nahiz eta 2006an sortu zuten web gunea Frantzian, 2009ra arte ez zuten Espainiako web gunerik sortu. Jatorrizko webgunea [www.covoiturage.fr](http://www.covoiturage.fr) deitzen da, baina beste herrialdeetara zabaldutakoan [www.blablacar.es](http://www.blablacar.es), [www.blablacar.de](http://www.blablacar.de), [www.blablacar.ru](http://www.blablacar.ru).... Deitura hartu du, non domeinua herrialde bakoitzaren arabera aldatzen den.

Parisen sortutako ekimen honek azkenen urteetan izugarritzko zabalkuntza eman du. Lehenengo bere ondoko estatura, Espainiara egin zuen salto, geroztik herrialde askotara zabaldu da. 2015 urteari dagokionez esan genezake urtarrilean Indiara iritsi zela eta apirilean auto-partekatze sektoreko bi enpresaz jabetu zela. Lehenengoa carpooling, enpresa Alemana eta Alemanian zuzeneko kompetentzia berau; eta bigarrena Autohop enpresa hungariarra. (Press, 2015) Azkeneko hau Europa ekialdean zegoen finkatua, hori dela eta jabetza honen bitartez BlaBlaCar Hungaria, Errumania, Serbia eta Kroaziara hedatu da. Beraz, gaur egun Europa eta Asiako 18 herrialdeetan aurki dezakegu ekimen hau, baita Mexikon ere. Izan ere azken herrialde honetako Rides plataformarekin batu baita aztertzen hari garen ekimen hau 2015eko apirilean. Guztira 19 herrialdeetan dago presente BlaBlaCar enpresa.

Mapa honetan ikus daiteke zer herrialdeetan duen presentzia ekimen honek:



Jarraian BlaBlaCar plataformak **nola funtzionatzen duen** azalduko dugu, horretarako bi ikuspuntu ezberdin banatuko ditugu bata bidaiariarena eta bestea gidariarena. Izan ere biak helburu ezberdina dutenez gero, plataforma erabiltzeko modua ere ezberdina izango da.

**Gidaria** izanez gero, egin behar den bidaia publikatzera izango da lehenengo lana, horretarako erregistratuta egotea eskatzen du BlaBlaCar plataformak. Behin erregistratuta, bankuko datuak sartu nahi diren edo ez erabaki behar da, izan ere, sartu ala ez, bidaia publikatu eta kobratzeko modua aldatu egiten da; hortaz, hemen ezberdindu egingo ditugu bi aukera hauek:

**Bankuko datuak sartuta:**

Lehenengo leihoan horretarako zuzendutako lekuan klikatu behar da. Bidaia publikatzeko datuak sartu beharko dira segidan, nondik nora eta noiz bidaiatuko den. Segidan onarpen automatikoa edo eskuzko onarpena nahi den erabaki behar da. Lehenengo aukeran bidaiariak erreserba egitean automatikoki gordeko zaio eserlekua, bigarrenengan aldiz gidariak erabakitzen du eskaera onartu ala ez. Erreserba bat

jasotzen den bakoitzeko, BlaBlaCar plataformak mezu elektronikoko bat eta SMS bat bidaliko dizkio gidariari, erreserbaren eta ordainketaren berri emateko.

Online ordainduko denez, ezereztatzeren bat izanez gero, politika arau bat zehaztuta dauka BlaBlaCar-ek. Ezereztatzea bidaia baino 24 ordu lehenagotik egiten bada, ezta kalte-ordainik egonen eta automatikoki erreserbatutako eserlekua libre geratuko da. Aldiz 24 ordu baino gutxiago geratzen badira, bidaiaren kostuaren %50 gidariari emango zaio eta ez badu ezereztatzen bidaiaren kostu osoa gidariari sartuko zaio. Ostera, gidariak ezereztatzen badu, automatikoki bidaiariari pagatutakoa bueltan emango zaio.

Bidaiaren prezioa automatikoki ezartzen du plataformak, nahiz eta gidariak igo edo jaitsi dezakeen kantitate hau. BlaBlaCar plataformak bidaiaren zenbatekoaren komisio bat kobratzen du, bi atalez osatua dagoena. Bata atal finkoa, 0.96€koa eta bestea aldakorra %10.77koa. Hala ere gehienez zenbatekoaren %20ko komisioa aplikatuko dela azaltzen du.

Behin bidaiaren momentua iritsita, elkargunean elkartuko dira interesatuak. Helmugara iristean, bidaiariak erreserba kodea eman behar diote gidariari, kode horren bidez eskatu ahalko baitu transferentzia bere kontura BlaBlaCar plataforman. Koderen bat falta izanez gero ere ez da ezer gertatzen, 7 egunen buruan transferentzia eskatu ahal izango baitu gidariak eta transferentzia eskatzea ahaztu ezker, 15 egunen ondoren automatikoki egingo litzateke eskatu ere egin gabe.

#### **Bankuko datuak sartu gabe:**

Modu honetan erreserba egitea sinpleagoa da. Bidaia nondik nora egingo den eta noiz zehaztu behar da publikatzeko garaian. Ondoren kobratuko den kopurua zehaztu behar da, berau bidaia hasteko unean eskuz ordainduko delarik. Bukatzeko zenbat eserleku dauden libre zehaztu eta partekatzea izango zen azkeneko pausua. Bidaiariak mezu pribatu bidez edo mugikor bidez jarriko dira kontaktuan eserlekua erreserbatu eta bidaiaren gaineko detaile gehiago jakiteko asmoz. Bidaia ondoren baloratzea bakarrik geratuko litzateke.

Ezaugarri hauek aparte, esan beharra dago BlaBlaCar atariak aukera ematen duela emakumeek bakarrik ikus dezaketen bidaia eskaintzeko.

**Bidaiaria** izanez gero bidaia bat bilatzeko honako pausu hauek jarraitu behar dira:

Sarrerako leihoan edo lehenengo leihoan zure bidaia bilatu behar duzu, horretarako bilatzailean nondik-nora eta noiz bidaiatu nahi den idatzi behar da. Segidan ibilbide hori egingo duten gidarien publikazioak azalduko zaizkizu (egotekotan) irteerako orduaren arabera ordenatuta.

Aurretik esan dugun bezala gidariak bi taldetan sailka daitezke, hori dela eta, BlaBlaCar plataformak online ordaintzeko/erreserbatzeko aukera ematen dutenak lehenesten ditu eta ondoren sailkatzen ditu aukera hori ematen ez dutenak. Beraz, zerrendan lehenengo ordainketa eta erreserba online egin daitezkeenak azaltzen dira eta ondoren besteak, beti ere abiatzeko orduaren arabera ordenatuta.

Bidaia bilatzeko unean iragazkiak erabiltzeko aukera dago, gidari aditua edo erdi mailakoa aukeratzeko, kotxe eroso nahi den edo ez den axola adierazteko, gidariak argazkia ikusgai edukitzea nahi den zehazteko... Iragazpenaren ondorengo zerrendan gehien interesatzen den bidaia klikatu dezakezu, datu gehiago jakiteko asmoz. Bertan gidariaren profila, beste bidaiariak gidariari buruz utzitako iruzkinak, gidariak utzitako xehetasunak bidaiaren inguruan, elkargunea eta mezu publikoak gidariari bidaltzeko aukera ere izango da bertan. Ikusitakoarekin ados egonez gero, bidaia erreserbatzeko garaia da. Hau egiteko, lehenik BlaBlaCar plataforman erregistratu behar da.

Ordainketa mota, eskudirutan ala online, gidariak bankuko datuak sartuak dituen ala ezaren baitan dago. Pausu honen ondoren geratzen direnak, ordainketa motak baldintzatzen ditu, beraz ezberdindu egingo ditugu:

**Bankuko datuak sartuta:**

Online erreserbatu behar bada eserlekua, erreserbaren segidan ordaindu egin behar da, erreserba kodea lortu ahal izateko. Behin erreserba eginda, gidariari SMS bat eta mezu elektronikoa iritsiko zaizkio, erreserbaz informatuz. Behin horrela, bidaiaren unea iritsitakoan elkargunera joan eta bidaiatzeko prest egongo litzateke bidaiaria. Helmugara iristean bertan izanez gero, erreserba kodea gidariari eman behar zaio,



berak lehenago kobratu dezan, eta azkenik gidariari iruzkin bat jartzea geldituko litzateke, bidaia baloratuz.

Bidaia burutzen ez bada, BlaBlaCar-ek kasu hauetarako duen politika araua aplikatzen da: ezereztatzea bidaia hasi baino 24ordu lehenago egiten bada, dirua bidaiariari bueltatuko zaio. 24 ordu baino gutxiago falta direla egiten bada, erdia bakarrik bueltatuko zaio eta ez badu ezereztatzen, zenbateko guztia, komisioa kenduta beti ere, gidariari emango zaio. Aldiz gidaria bada elkargunera iristen ez dena edo bidaia ezereztatzen duena, automatikoki bidaiariak zenbateko guztia jasoko du.

### **Datuak sartu gabe:**

Kasu honetan, mezu pribatuen bidez kontaktuan jarri eta eserlekua erreserbatu beharko litzateke. Ordainketa eskudirutan egingo da unean bertan. Kasu honetan ez dago ezereztatze politika araurik.

Bidaiaren bilaketa atalarekin bukatzeko aipatu, nahi den ezaugarriekin ez bada bidaiarik aurkitu zerrendan, **alerta** bat sortu daiteke. Horrela, norbaitek bidaiariaren ezaugarriekin bat datorren bidaia publikatzen badu, jakinarazpen bat iritsiko zaizu.

### **Konfiantzaren neurketa**

Gisa hauetako zerbitzuetan konfiantza eta fidagarritasuna ezinbestekoa dira. Ideia hauetan oinarritutako komunitatea sortzea da helburu, partekatzean bidaia lagunak eroso sentitzeko. Helburu horri segika, 3modu ditu plataforma honek konfiantza sustatzeko bere atarian:

- Benetakotasuna egiaztatzea. Goitizenak debekatuta daude, profileko argazkia ere txukuna izan behar du, mugikor zenbakia, posta elektronikoa .... denak egiaztatzen dira erregistratu aurretik.

- Auto-moderazioa: BlaBlaCar komunitatean elkar baloratzen dute erabiltzaileek, bidaia bakoitzaren ondoren, bai gidariak bidaiariak baita alderantziz ere. Horrela bakoitzak balorapen bat edukiko du, etorkizuneko bidaia-lagunei ongi etorriko zaien informazioa hain zuzen ere. Honekin lotuta dago BlaBlaCar-ek sortutako

esperientzia mailaren taula. Honetan, orduan eta bidaia gehiago egin eta orduan eta iruzkin hobeagoak jaso, maila igotzen joan daiteke, hasiberritik aditu maila arte.

- Moderazio taldea: Ekimen honek talde bat dauka benetakotasuna aztertu eta egindako iruzkinak onargarriak direla ikuskatzeko ere. Hauek arduratzen dira profilak aztertzeaz, iruzkinak errespetuzkoak diren hala ez kontrolatzeaz, etab.

## Partner

Partner-en xedea BlaBlaCar.es webgunera sartu gabe, autoa partekatzeko aukera izatea da. Horretarako BlaBlaCar plataformara sarbide bat ezartzen da iturburuko web orrian. Uda honetarako azaltzen den partner garrantzitsuena eta gertu geratzen zaiguna Bilbao BBK live festibala da. Bertan, [Bilbao BBK Live](#) atarian, BlaBlaCar ekimenaren bidez

autoa partekatzeko leiho txiki bat aurkitzen da. Honen helburua kobetamendin ospatzen den festibalera nahi dutenek autoa partekatuz iristeko aukera izatea da.

The screenshot shows the Bilbao BBK Live website. The top navigation bar includes links for HOME, NOTICIAS, CARTEL, INFORMACIÓN, and ENTRADAS. A dropdown menu is open under 'INFORMACIÓN', listing options like 'Como Llegar', 'Información', 'Zona de Acampada', 'Viajes Organizados', 'Alojamiento', and 'Contacto'. The main content area features a section titled 'Oslo, Stuttgart, Zurich...' with text about the Bilbao airport and bus routes. Below this is a 'Comparte Coche' advertisement for BlaBlaCar, which includes a search form with 'De...' and 'A...' fields and a 'Buscar viajes' button. The advertisement is highlighted with a pink oval.

Jarraian dauden irudietan BlaBlaCar ataria nola osatuta dagoen azalduko da. Zehazki bidaia bat bilatzeko ireki behar diren leihoetan dago oinarrituta.

**¡Crea una alerta!**  
Recibirás un e-mail cuando se publiquen nuevos viajes Durango - Salamanca

**14 viajes de Durango a Salamanca**

Conductor	Fecha y Hora	Ruta	Precio por plaza	Plazas disponibles	Aceptación
Iban Q (36 años, Intermedio)	jueves 30 abril - 05:00	Elgoibar → Salamanca → Sevilla	24 €	2 plazas disponibles	Automática
Elena Y Ricardo U (27 años, Experto)	jueves 30 abril - 10:00	Vitoria-Gasteiz → Salamanca → Cáceres	18 €	1 plaza disponible	Manual (< 12 h)
Mariano O (53 años)	jueves 30 abril - 11:55	Pamplona → Vitoria-Gasteiz → Salamanca	36 €	3 plazas disponibles	Manual (< 3 h)
Jokin (24 años)	jueves 30 abril - 14:00	Bilbao → Salamanca	23 €	1 plaza disponible	Manual (< 3 h)

**Alerta jartzeko aukera**

**Bilatutako bidaien eskaintza**

**Iragazkiak**

- Esconder viajes completos (3)
- Franja horaria: 5h - 20h
- Precios:
  - Mejor precio (12)
  - Precio medio (1)
  - Precio alto (1)
- Tiempo de aceptación:
  - Inmediato (3)
  - de 1 h (4)
  - de 3 h (9)
  - de 6 h (12)
  - de 12 h (14)
  - Todos (14)
- Foto:
  - Sólo con foto (8)
  - Indiferente (14)
- Experiencia:
  - Experto (4)
  - Avanzado (5)
  - Intermedio (10)
  - Todos (14)
- Coche

**Bla Bla Car** | Buscar | Publicar un viaje | Registrarse | Iniciar sesión | Cómo funciona | €

**Durango → Salamanca: Aiane G está ofreciendo un viaje por 24 €**

**Bidaiaren datuak:**

- \*Irteera eta helmuga
- \*Irteera ordua
- \*Boltsoaren tamaina
- \*Autoaren datuak

**\*Bidaiaren prezioa**

**\*Eserleku libreak**

**\*Onarpena automatikoa edo eskuzkoa den**

**Erreserba egiteko atala**

**Lehenengo leihoaren laburpena**

**Bidaiaren datuak:**

- Salida: Durango, Vizcaya, España, Durango
- Destino: Salamanca, Salamanca, España, Salamanca
- Fecha: viernes 24 abril
- Hora de salida: 18:00
- Desvío: Max. 15 min de desvío
- Flexibilidad: Salida justo a tiempo
- Tamaño equipaje: Mediano (bolsa de viaje)
- Coche: Peugeot 206

**24 € por plaza** | Aceptación: Manual < 12 h

3 plazas disponibles

¡NUEVO! Reservar on-line

Conductor: Aiane G (27 años, Avanzado)

**Mensajes públicos (0)**

**¡NUEVO!** Las plazas publicadas son las que hay disponibles: no hace falta preguntarle al conductor

Recibirás el número de móvil del conductor después de pagar on-line. Las plazas publicadas son las que hay disponibles: no hace falta preguntarle al conductor

Recibirás el móvil después de pagar on-line [Preguntar](#)

[Ver las normas](#)

**Aiane G**  
27 años  
Avanzado

★ 4.8 - 6 opiniones  
Muy Buen Conductor — 3 / 3

✓ Móvil Certificado  
✓ E-mail Válido

**Actividad**

📍 13 viajes publicados  
🕒 Última conexión: sábado 21 marzo  
📅 Usuario desde: 28 septiembre 2014

[Ver el perfil público](#)

**Gidariaren datuak**

**Itinerario y compañeros en el coche**  
Distancia: 438 km - Duración estimada: 7 h 10 min

Ubicación	Hora	Compañeros
Durango	18:00	Aiane G (27 años)
Vitoria-Gasteiz	18:50 (Hora de paso estimada)	
Burgos	20:40 (Hora de paso estimada)	
Valladolid	23:10 (Hora de paso estimada)	
Salamanca	01h10	

**Gidariarekin beste bidaietan bidaiatu duten erabiltzaileen iruzkinak**

- Genial De Loli G : Muy bien, el próximo fin de semana repito. 17 enero 2015
- Genial De Albar B : Kids are the future. 26 diciembre 2014
- Genial De Ane A : Muy buen viaje! Si coincidimos en otra ocasión viajare con ella tb!

**Profil publikoa**

**Lehenengo leihoaren laburpena**

**Gidariaren eta autoaren datuak**

**Bla Bla Car** [Buscar](#) o [Publicar un viaje](#) Registrarse | Iniciar sesión | Cómo funciona | €

**Certificaciones**

✓ Móvil Certificado  
✓ E-mail Válido

**Actividad**

📍 13 viajes publicados  
🕒 Última conexión: sábado 21 marzo  
📅 Usuario desde: 28 septiembre 2014

**Coche**

Peugeot 206 ★★★  
Color: gris claro  
Confort: Cómodo

**Aiane G (27 años)**

Valoración media: ★ 4.8 - 6 opiniones  
Experiencia: Avanzado  
Preferencias:

Soy

**Gidariaren aurkezpen labur bat**

**Gidariarekin beste bidaietan bidaiatu duten erabiltzaileen iruzkinak**

**¿Por qué viajar conmigo?**  
"Trabajo en Bilbao pero estudio en Salamanca, además tenemos pueblo en Barbadillo y cuando tengo un fin de semana libre aprovecho"

**Opiniones recibidas**  
★ 4.8 - 6 opiniones  
Muy Buen Conductor — 3 / 3

Genial	5
Muy bien	1
Bien	0
Regular	0
Mal	0

- Genial De Loli G : Muy bien, el próximo fin de semana repito. sábado 17 enero - 21:32
- Genial De Albar B : Kids are the future. viernes 26 diciembre 2014 - 23:40

**BlaBlaCar zenbakitan:**

- 20 milioi erabiltzaile baino gehiago dauzka BlaBlaCar-ek mundu guztian zabalduz
- Facebooken 2.4 milioi atsegite ditu
- Twitteren 32.380 jarraitzaile eta 18.900 txio publikatuta



Aztertuko den lehen ekimena Amovens izeneko da. Ekimen hau *Amovens soluciones S.L.* enpresarena madrildarrarena da. Diego Higaldo izan zen sortzaile 2009an. Jakina da erakunde askoren laguntza jaso zuela ekimen honek, hauen artean Eusko jaurlaritzarena.

Aipatzekoa da 2014. Urtean izugarritzko hazkundera izan zuela eta ondorioz *Gomore* alor berdineko eskandinaviar enpresa batek erosi zuen, aurrerapenari bidea irekiz.

Amovens orriaren funtzionamendua

Lehenengo ekimena aztertu denean bezala, hemen ere gidari eta bidaiarien ikuspuntua bananduko dugu, plataforma erabiltzeko modua ezberdina baita kasu bakoitzean.

#### **Gidariaren ikuspuntutik**

Hasierako leihoan agertzen den “publicar viaje” laukitxoan klikatu behar da. Segidan, bakoitzaren datuak sartuz erregistratu egin beharko da eta datozen 4 pausoei jarraitu: Lehenik eta behin bidaia nondik nora egingo den zehaztu behar da, bigarrenengo pausua izango da data eta ordua zehaztea. Ondoren, eskaini nahi den eserleku kopurua jarriko da. Honekin batera, iruzkinen bat ere idatzi daiteke, elkargunea non izango den adieraziz, edo zer herrietatik pasako den jendea hartzera. Bukatzeko prezio bat ezarri behar da. Sistemak automatikoki, distantzia, bidesarien arabera, prezio bat ezartzen du, baina hau igo edo jaitsi dezake gidari bakoitzak.

Erreserbei buruz esan dezakegu bidaiariak eserlekua erreserbatzen dutenean gidariak onartu edo ukatu egin dezakeela, bere esku dago beraz nork bidaiatzen duen bere autoan. Bukatzeko esan beharra dago ordainketak beti eskudirutan egiten direla, autoan bertan.

Erabiltzailea **bidaiaria** bada...

Bidaia bilatzeko garaian plataformako hasierako leihoan bidaia nondik nora eta zein egunetan egin nahi den jarri behar da, baina eskaintzen diren bidaiak ikusteko erregistratzera behartzen du orrialde honek.

Alerta bat sortzeko aukera ere eskaintzen du plataformak, guk nahi dugun ezaugarriekin bat datorren bidaiarik oraindik eskaini ez badute. Horrela, gidariren batek jarritako ezaugarriekin bat datorren bidaiaren bat eskaintzen duenean mezu elektronikoa bat iristen da horretaz informatuz. Eskari guztiak, hau da alertak, lista batean gordetzen dira, non beti ikusgai dauden. Horrela, gidariren batek bere bidaia publikatu aurretik badaki egingo duen bidaiaren gisakoren bat norbaitek bilatzen duen ala ez.

Behin nahi dugun bidaia aukeratuta, bai alerta bat jarri ondoren bai eskaintzatik zuzenean aukeratuta, eserlekua erreserbatzeko eskaera bidali behar da web orriaren bidez. Ondoren gidariak onartu ala ukatu egingo du eskaera, bere nahiaren arabera. Eskaera onartua izan bada, gidariarekin hitzartutako abiapuntura azaldu behar da erabakitako orduan eta ordainketa autoan bertan egiten da esku dirutan. Aipatu beharra dago, behin erreserba eginez gero, aldaketaren bat egingo balu gidariak, automatikoki SMS zerbitzu bidez informatzen dela bidaiaria, aldaketez abisatzeko.

Lehen esan bezala, gisa honetako plataformetan konfiantza oso garrantzitsua da, hori dela eta, Amovens-en ere garrantzia handia dauka **konfiantzaren neurketa**. Segidan, plataforma honetan hori nola neurtzen den azalduko da.

Erabiltzaileek bidaiako beste erabiltzaileak baloratu ahalko dituzte, bai iruzkinak idatziz bai izarretan puntuazioa emanez. Iritzia ematea oso garrantzitsua da, horrela Amovens komunitatean balorapen bat jasoko du erabiltzaile bakoitzak, ondorengoentzako oso erabilgarria izango dena bidaia lagunak aukeratzeko garaian. Ekimen honetan gainera “super erabiltzailea” bilatzeko aukera dago, hau da balorazio estatus altuena. Horretarako, gutxienez hiru iruzkin izan behar ditu erabiltzaileak, 5etik 5eko puntuazioa maila izarretan, mugikorreko zenbakia, helbide elektronikoa eta argazkia



perfilean ikusgai. Hau lortuta, honako ikono hau lortzen da. Erabiltzaileek plataforman diotenez, ikono hori duten erabiltzaileek fidagarritasuna transmititzen die. 🏆

Orain arte erabiltzaileek bidaiak nola partekatzen dituzten aztertu da, bai bidaiak eskainiz edota bidaiak bilatuz bidaiarien kasuan.

Segidan Amovens plataformak eskaintzen dituen bi erreminta/tresna berri aztertuko dira. Hasieran *widget* bat zer den eta nola konfiguratu daitekeen azalduko da eta segidan ekitaldiak sortu eta hauetara autoa partekatuz iristeko eskaintzen duen aukera.

The screenshot shows the Amovens website interface. At the top, there is a navigation bar with links for 'Viajes', 'Pasajeros', 'Eventos', 'Publicar viaje', and 'Crear alerta'. Below this is a search bar with the text 'Encuentra coches para compartir coche' and a search button. A pink arrow points to the search bar. Below the search bar, there is a list of travel offers with details such as destination, time, and price. A pink arrow points to the first offer. To the right of the list, there are statistics: '5.223' viajes hoy, '291.394' usuarios activos, and '4.070.676' ahorro de CO2 en kg. Below the statistics, there is a section for 'Próximas salidas' with a list of upcoming trips. At the bottom, there is a footer with a navigation menu for 'Empresa' (Sobre Amovens, Prensa, Blog, Widgets, Ayuda, Apps) and 'entradas del blog'. A pink arrow points to the 'Empresa' menu.

Widget, wikipediaren definizioaren arabera, aplikazio txiki bat da eta bere helburua sarbide errez bat ematea da. Lotura bat sortzen duen testu bat sortzen du plataformak, erabiltzaileak testu hori bere web gunean itsatsi behar duelarik lotura



hori sortzeko. Beraz, gure testu ingurura egokituz, erabiltzaileek widgets-ak konfiguratzeko iturburuko orrialdera amovens-era sarbidea lortuko dute. Honela, iturburuko orrian autoa partekatzeko aukera ematen duen atal bat sortuko da, amovens plataformara sartu beharrik gabe egin ahal izateko.

Sarbide hauek hiru motatakoak izan daitezke:

-Bilakuntza widgeta: Mota honetako widget-etan bidaiaren nondik norakoak lehenetsita agertzen dira. Adb Bartzelona-Madril

-Toki widget-a: Kasu honetan leku bat izena eta bere helbide zehatzarekin gordetzen da, horrela bilaketa egiteko garaian izena jarriz gero, zuzenean helbide horretara gidatzen du sistemak. Esaterako Miramon, Parque Tecnológico Miramón, 20014 Donostia-San Sebastián bezala dago gordeta Amovens plataforman.

- Ekitaldi widget-a. Hirugarren widget-a, hurrengo puntuan azalduko da, ekitaldiak sortzearekin lotuta baitago.


Atal honetan ekitaldiak sortzeko aukera ematen duen tresna aztertuko da. Amovens web orriak ekitaldiak sortzeko aukera ematen du. Behin ekitaldia sortuta, automatikoki ekitaldi horrek duen web orriarekin lotzeko widget bat ematen du amovens atariak. Horrela ekitaldi horren web ataria eta amovens en izen berdinarekin sortutako ekitaldia lotzen dira. Honen helburua ekitaldi horretara joan nahi dutenek autoa

The screenshot shows the Amovens website interface. At the top, there is a navigation bar with the Amovens logo and menu items: Viajes, Pasajeros, Eventos, Publicar viaje, and Crear alerta. On the right side of the navigation bar, there are icons for Mensajes, Maria (with a dropdown arrow), and Resumen (with a dropdown arrow). Below the navigation bar, there is a red button labeled 'Compartir coche a:' and two buttons: '+ Publica viaje a este evento' and 'Compartir'. The main content area features a red box with the 'ARF' logo and the text 'Azkena Rock Festival en Vitoria-Gasteiz'. Below this, it shows the dates '19.06.2015 - 20.06.2015', the location 'Vitoria-Gasteiz, Spanien', and 'Creado por Diego Ochoa'. A paragraph of text describes the festival: 'La decimotercera edición del Azkena Rock Festival se celebrará los días 19 y 20 de junio de 2014 en el habitual recinto de Mendizabala de Vitoria-Gasteiz. Cartel: ZZ TOP, TELEVISION, RED FLAG...'. Below the text, there is a section titled 'Viajes disponibles' with a car icon. It includes a toggle for 'Al evento' and 'Desde el evento'. A table lists available trips with columns for Salida, Ruta, Conductor, Precio, and Plazas. The table contains four rows of trip information.

Salida	Ruta	Conductor	Precio	Plazas
19.06.2015 06:30	Balmaseda, Bizkaia → Vitoria-Gasteiz, Araba	Axun Gereka	€ 4	3
19.06.2015 07:30	Haro, La Rioja → Vitoria-Gasteiz	Victor Ramirez	€ 3	3
19.06.2015 14:00	Haro, La Rioja → Vitoria - Gasteiz, Vitoria-Gasteiz	Victor Ramirez	€ 2	3
20.06.2015 20:00	Baracaldo, Vizcaya → Vitoria-Gasteiz	jose luis u	€ 5	3

partekatuz mugitzea da. Hau hobeto azaltzeko adibide bat jarriko dut jarraian.

Hauxe da Azkena Rock Festival-en ekitaldia. Irudian ikus daitekeen bezala ekitaldi honetara doazen bidaiak eskaintzen dira. Honetaz aparte, doako widget-a lortzeko atala ere ikus daiteke ezkerrean. Sarbide hau nola ikusten den Azkena Rock Festival-en web orrialdean jarraian dauden irudietan aurkitzen da.



### KOTXEZ

Gasteizera A-1 edo AP-1 errepidetik hel daiteke Madriletik edota Donostiatik bazatoz, eta A-68 errepidetik Bartzelonatik edota Bilbotik bazatoz. Autobide hauek zuzeneko irteera dute hirira.

Zure bidaiaren plangintza **HEMEN** egin ezazu!

Trafikoaren eta errepideen egoeraren informazioa ondorengo webgunean daukazu: **Errepideen egoera**.  
Telefonoz ere dei egin dezakezu: 945 28 20 00.



Y si quieres compartir coche, te recomendamos que le eches un vistazo a la plataforma **Amovens**.

### HEGAZKINEZ

#### FORONDA

Gasteizko aireportua (VIT) hiritik 9 kilometrora dago. Doako aparkalekua dago baina ez dago zaintzarik, eta autobusentzako beste aparkaleku bat ere badago. Radio Taxiren telefono zenbakia: 945 27 35 00. Hegaldiei buruzko informazio zenbakia: 945 16 35 91 eta **webgunea**

#### LOIU (BILBAO)

Bilboko aireportura heltzen bazara, hiri autobusa har

### AUTOBUSA

Gasteizera joateko:

Autobus guztiak Los Herrán kalera heltzen dira. Helbidea: Los Herrán kalea, 50. Telefono zenbakia: 945 25 84 00. Hauexek dira hirira datozen autobus enpresak: Bilman Bus, Continental Auto, Eurobus, Alegría Hnos., Grupo Alsa-Enatcar, Grupo Arriaga, La Burundés SA, La Unión, Pesa, Socitransa, Vivaza.

Mendizabalara egunez joateko:

**L2 (a eta b)** lineak: Mendizorrotza geralekua

**L8** linea: Lasarteko Atea geralekua

Mendizabalatik gauetz itzultzeko:

**G3** gautxoria: Castilla kalea, 80 geralekua

### TRENA

Trenez bidaiatzea gustoko baduzu, izugarri eroso da garraio-bide honekin Gasteizera bertaratzea. Euskadiko kapitalera hurbiltzen zarela, Arabako paisaiaz goza ezazu.

Irudietan ikusten den bezala, widget-a erabiliz Azkena Rock Festibaleko web gunean amovens en bidez autoa partekatuz iristeko aukera ematen dute, lotura bat eskainiz beraien web orrialdetik Amovens plataforman sortutako ekitaldira.

Plataforma honen funtzionamendua azertzen bukatzeko, eskaintzen duen beste zerbitzu bat azalduko da. Zerbitzu hau unibertsitate, enpresa edo administrazio publikoei zuzenduta dago batez ere. *Amovens pro* deitzen da eta interesatutako erakundeari carpooling-a sustatzeko web gune pertsonalizatu bat sortzea eta kudeatzea du helburu. Horrela, erakunde horretara egunero joaten diren langile, ikasle edo hiritarrei, elkarrekin kontaktuan jarri eta autoa partekatzeko plataforma bat eskaintzen die erakundeak. Zerbitzu honen inguruko adibide gisa Miramon parke teknologikoak duen orrialdea aipa genezake. <http://miramon.amovens.com/es/>

Amovens ekimena interneteko web orrian ez ezik mugikorrentzat sorturiko aplikazioan ere aurki daiteke. Aplikazio hau android eta iPhone motako mugikorrentzat dago eskuragarri.

Jarraian dauden irudietan Amovens ataria nola osatuta dagoen azalduko da. Zehazki bidaia bat bilatzeko ireki behar diren leihoetan dago oinarrituta.

The screenshot shows the Amovens website interface. The main navigation bar includes 'Compartir coche', 'Alquiler de coches', 'FreeCar', 'Empresas', 'Prensa', and 'Blog'. The user is logged in as 'María'. The main heading is 'Encuentra compañeros para compartir coche' with the subtitle 'La forma más barata, divertida y flexible para viajar'. Below this is a search form with 'Viajar desde' set to 'Ej. Madrid' and 'a' set to 'Ej. Barcelona', with a date of '24.05.2015' and a 'Buscar' button. A 'Publicar viaje' button is also visible. The 'Próximas salidas' section lists several car-sharing trips with details like departure time, route, driver name, and price. A statistics box on the right shows '5.781' viajes hoy, '299.474' usuarios activos, '4.317.561' ahorro de CO2, and a '4.8 de 5' rating. A social media snippet for 'María Acot Rodríguez' is also present.

Labels and arrows pointing to specific elements:

- Eskaintako eta eskatzen diren bidaietarako sarbidea** (Access to offers and requests): Points to the navigation menu.
- Ekitaldietarako sarbidea** (Access to events): Points to the 'Eventos' menu item.
- Eskaintako bidaiak aurkitzeko bilatzailea** (Searcher for offers): Points to the search form.
- Alerta jartzeko aukera** (Option to set an alert): Points to the 'Crear alerta' button.
- Bidaia eskaintzeko sarbidea** (Access to offer trips): Points to the 'Publicar viaje' button.
- Berehala burutuko diren bidaiak** (Upcoming trips): Points to the 'Próximas salidas' list.
- Amovens plataformaren datu batzuk** (Some data from the Amovens platform): Points to the statistics box.

**Amovens** Viajes Pasajeros Eventos Publicar viaje Crear alerta Mensajes Maria Resumen

**Madrid → Barcelona**

28 resultados con un radio: 25km

Viernes 29. mayo 2015

- 29/5 a las 08:00 Madrid → Barcelona Salvador Campoy - Audi A4 € 25
- 29/5 a las 08:45 Madrid → Barcelona Daniel Mateo - Renault Kangoo € 28
- 29/5 a las 09:00 Madrid → Barcelona Daniel M - Renault Kangoo € 28
- 29/5 a las 09:00 Atocha Renfe, Madrid → Barcelona-Sants, Barcelona Manuel J Enguita - Lancia Voyager € 30
- 29/5 a las 09:00 Menéndez Pelayo, Madrid → Barcelona Mario creso santos - Renault trafic € 30
- 29/5 a las 09:00 **RESERVA INMEDIATA** Alonso Martinez, Madrid → Camp Nou, Barcelona Carlos González González - BMW SERIE 1 116D € 37
- 29/5 a las 09:15 Madrid → Barcelona cloe moral muñoz - citroen jumpy € 30

iPrueba nuestra app gratuita!

**SuperUsuario?**  
Nuestros mejores conductores llevan un icono de SuperUsuario. Info adicional =

Bilatutako bidaiaren eskaintza

Lehenengo leihoaren laburpena

Super erabiltzaileak

**Amovens** Viajes Pasajeros Eventos Publicar viaje Crear alerta Mensajes Maria Resumen

**Carlos González González** Madrid



Soy un chico extremeño, simpático y formal, que estoy trabajando en Madrid, y viajo a menudo a mi tierra. Me encanta hacer deporte, el cine y viajar.

Usuario desde	30.10.2012
Ciudad actual	Madrid
Edad	32
Formación	Ingeniero Telecomunicaciones
Sobre mi	Consultor De Seguridad
Coche	BMW SERIE 1 116D
Viajes creados	23
Viajes como conductor	6 viajes / 0 km
Viajes como pasajero	0 viajes / 0 km
Ahorro de co2	0 kg

**Valoraciones**

- 17. may 2015 por Agata *Muy buena comunicación y muy amable.* ★★★★★
- 17. may 2015 por Edu *Me ha parecido una persona atenta y preocupada. gracias* ★★★★★
- 14. may 2015 por fran ★★★★★
- 27. abr 2015 por Pablo ★★★★★
- 19. abr 2015 por Gloria *Muy buen conductor y super amable* ★★★★★

Gidariaren eta autoaren datuak

Gidariaren aurkezpen labur bat

Gidariarekin beste bidaiak partekatu dituztenen iruzkinak



## Amovens zenbakitan

Bukatzeko Amovens ekimenari zifra batzuk ezarriko zaizkio. Lehenik bere web orrian agertzen diren datuak aipatuko dira eta segidan sare sozialetan dituen jarraitzaileak aipatuko dira.

- Ia 300.000 erabiltzaile erregistratu
- 61.000 atsegite ditu facebooken
- Twitterrean dagokionez 7.750 jarraitzaile eta ia 10.000 txio publikatuta



Aztertuko den hirugarren ekimena **Carpooling** deitzen da. Ingelesezt Carpooling hitzak bidaia partekatzea esan nahi du eta ekintza hori burutzeko dauden plataforma erabilienetariko bat da gaur egun. Berau, 2001ko apirilean sortu zen Stefan Weber, Mchael Reinicke eta Matthias Siedleren ikasle garaiko ideia baten ondorioz. Plataforma honek bere lehen urratsak Munichen eman zituen, nahiz eta geroztik asko zabaldu den.

Aurretik aipatu den arren, puntu honetan ere aipatu beharra dago 2015eko apirilean BlaBlaCar enpresa frantsesak erosi zuela enpresa hau. Nahiz eta bi plataformek martxan segi eta bakoitzak bere modura jarraitzen duen, lehen BlaBlaCar en zuzeneko kompetentzia zen carpooling dagoeneko BlaBlaCar enpresaren parte bihurtu da.

Segidan, aurreko bi plataformak aztertu ditugunean bezala, web orri honen funtzionamendua eta ezaugarriak analizatuko ditugu. Aurreko bi kasuetan bezala, hemen ere gidariaren eta bidaiariaren erabilera bananduko ditugu.

**Gidaria** izanez gero plataformako erabiltzailea:

Bidaia argitaratu ahal izateko lehenik eta behin erregistratu egin behar da. Bai facebook bidez, bai carpooling-ek eskatzen dituen datuak beteta. Behin erregistratuta egonik, bankuko datuak sartu nahi diren ala ez erabaki behar da. Izan ere, datuak sartuta edukiz gero, ordainketa mota aukeratu ahal dezake gidariak eta ezereztatzeko politika araua ere aplikatu daiteke kasu honetan. Beraz, BlaBlaCar ekimena aztertzeko garaian bezala, hemen ere bankuko datuak sartuak dituztenak eta ez dituztenak ezberdinduko dira, batez ere ordainketaren pausua iristen denean.

Behin erregistratuta eta bankuko datuekin zer egin erabakita, “publicar viaje” atalean sartu behar du. Hemen bi aukera daude, bata bidaia bat eskaini nahi duenarentzat, gidariarentzat alegia, *eskaintza* deiturikoa eta bestea *bilaketa* izenekoa, bidaia bat bilatu nahi duenarentzat zuzendua, bidaiariarentzat.

**Gidariak** eskaintzan sartu beharko du eta ondorengo pausu hauek jarraitu:

Esan bezala, eskaintza deituriko atalean sartu beharko da. Eskaini nahi duen bidaiaren maiztasuna zehaztu beharko da ondoren. Bidai erregularra izango den edota bidaia konkretu bat, egun batekoa. Ibilbidea eta eguna zehaztu behar dira segidan. Xehetasunen atalean ekipamenduaren tamaina edota bidaia emakumeentzat bakarrik eskainiko den ala ez aukeratu daiteke.

Ordainketa eskudirutan ala online egitea nahi den zehaztu behar da. Lehen aipatu moduan, hemen hasten dira ezberdintasunak.

**Bankuko datuak sartuta:**

Ordainketa mota, online edo eskudirutan, aukeratzeko aukera ematen du plataformak. Online aukeratuz gero, bidaia burutu baino lehen pagatzen du bidaiariak eta gidariari bidaia egin eta gehienez 3 egunetara iritsiko zaio bere kontu korrontera . Carpooling plataformak bidaiaren zenbatekoaren %11ko komisioa kobratzen du. Ordainketa ezberdina izateaz aparte, bidaia ezereztatzen den kasuetarako edota bidaiariak azaltzen ez diren kasuetarako politika araua aplika daiteke online ordainduz gero. Eskudirutan aukeratu ezker ezin da aipatutako politika araurik aplikatu, momentuan bertan ordaintzen baita zenbatekoa.

Bidaiariak azalduko ez balira, ezarritako politika araua aplikatzen da. Bidaia hasi baino lehenagoko 3 egunetan bere erreserba ezeztatzen ez bada, gidariak berdin-berdin kobratuko du. Bestalde, online ordaindutako bidaia batera gidaria azaltzen ez bada, bidaiariei dirua itzuliko zaie, hauek 24 orduko epean bezeroaren arreta zentzora deitu eta egoera azaltzen badute.

**Bankuko datuak sartu gabe:**

Ordainketa zuzenean eskudirutan egingo da. Kasu honetan bidaia burutzen ez bada ez dago ondorio zuzenik. Nola zenbatekoa autoan bertan ematen den, diruaren aldetik ezin da ezer egin. Bidaiari eta gidariak elkarri iruzkinak jarriz abisa dezakete aurrerantzean bidaia lagun izan daitezkeenei gertatutakoa; noren errua izan den bidaia ez burutzea, nork ez duen abisatu elkargunera agertuko ez zela...

Ordainketa mota batekoa ala bestelakoa izan, bidaiariak plataforman bertan erreserba dezakete eserlekua. Hau egitean, SMS mezu bat eta mezu elektronikoa bat iritsiko zaizkio gidariari, berak onartu ala ukatu dezan eskaera. Erreserba egitean, bi erabiltzaileak kontaktuan jartzeko mugikor zenbakia ematen da, horrela elkargunea zehazten dute bi interesatuek.

Azken pausua, zehaztutako elkargunera puntual joatea eta bidaia ondoren iruzkinak idaztea izango litzateke, ondorengo erabiltzaileek balorazioen bidez informazio gehiago izan dezaten erabiltzaile hauei buruz.

**Bidaiaria** izanez gero bidaia bat bilatzeko honako pausu hauek jarraitu behar dira:

Hasierako leihuan bidaia ze tokitik ze tokira egin nahi den idatzi behar da eta zer egunetan. Hauek idatzitakoan eskaintako bidaia guztiak zerrenda batean azalduko dira, irteera ordu eta prezio ezberdinekin. Bakoitzari gehien interesatzen zaion eskaintzan sartu eta bidaiaren xehetasunak ikusteko aukera dago. Erreserba egin edota gidariaren profilean sartzeko, dituen balorapenak ikusi, autoaren ezaugarriak begiratu... hau dena egiteko erregistratzera behartzen du carpooling plataformak.

Erregistratu ondoren, gidariari mezua idazteko aukera ere ematen du web orriak, bidaiaren nondik norakoak argitzeko, erreserba egin aurretik. Behin egin nahi den bidaia aukeratuta, erreserba egin behar da. Gidariari SMS mezu bat eta mezu elektronikoa bat iritsiko zaizkio eta berak erabakiko du erabiltzaile horren eskaera onartzen edo ukatzen duen.

Ordainketa eskudirutan ala online egin daiteke, hau aukeratzea gidariaren baitan dago. Segidan azalduko dira bi ordainketa mota hauen arteko ezberdintasunak:

**Bankuko datuak sartuta badauzka gidariak:**

Bidaia aurretik Paypal bidez egiten da ordainketa eta bidaia burutzen ez bada honako politika araua aplikatzen da: bidaiaria elkargunera azaltzen ez bada, ez zaio dirurik bueltatuko, dirua itzultzeko bidaia hasi baino 3 egun lehenago erreserbatutako eserlekua libre utzi behar da. Erreserba epe hori baino lehen ezereztatzen badu dirua itzuliko zaio, gainontzean ez. Gidaria bada elkargunera azaltzen ez dena, bidaiariak 24orduko epea izango du bezeroaren arreta zentrora deitu eta gertatutakoa azaltzeko. Kasu honetan ordaindutakoa itzuliko zaio, ez badu deitzen ez.



### **Datuak sartu gabe badauzka:**

Bidaia burutzen ez bada ez da inolako ondoriorik. Izan ere oraindik ez da ordainketarik egin. Kasu hauetan balorazio negatiboa idatzi daiteke beste etorkizuneko bidaiariak gertatutakoaren berri izateko gidari edo bidaiari horrekin.

Aldiz bidaia normaltasunez burutzen bada, azken pausua gidariari balorazio bat egitea izango litzateke. Balorazio hauekin etorkizuneko erabiltzaileek bidaiaria eta gidariari buruzko datu gehiago izango dituzte eta horrela komunitatea sendotzen da.

### **Elkarguneak**

Plataforma honetan, aztertutako beste biez ezberdinduz, elkarguneak erregistratu eta bidaiaren abiapuntu bezala erabiltzeko aukera dago. Hiri bakoitzean elkargune ezberdinak daude, biribilgune ezagunak, autobus edo tren geltokiak, unibertsitatea... orokorrean jendeak ezagutzen dituen puntuak dira. Hauek sortuz, erabiltzaile berriek edota hiria ezagutzen ez dutenek puntu hauei buruzko informazioa edukitzea lortu nahi da. Edozein erabiltzailek sortu dezake elkargune bat. Sortzerakoan kokapen zehatza eta garraio publikoarekin puntu horrek dauzkan loturak azaldu behar dira. Honetaz aparte autobidera lotura ona duen ere jartzeko aukera ematen du.

Adibide gisa, Bilboko elkargune bat sortzeko zer informazio jarriko litzatekeen azalduko da.

Elkargunearen izena: Termibus autobus geltokia

Kokapen zehatza: Pérez Galdós kalea, Bilbao.

Garraio publikoa: Metroa, Euskotren, Renfe eta autobus zerbitzua. Honetaz aparte, autobidera irteera.

Elkargune hau sortuta egongo balitz, Bilbotik irtengo ziren bidaietan erabiltzaileei termibus-en elkartzeko aukera azalduko zaie, bertara nola heldu informazioa aurkituko dutelarik eta google-en mapan markatuta agertuko litzateke.

Bukatzeko beste bi plataformekin egin den moduan, web guneko atal ezberdinak azalduko ditugu, bidaia bat aurkitzeko eman behar diren pausoetan zentratuz.

Hau egin aurretik, aipatu beharra dago carpooling plataformak “segurtasun zigilua” daukela, bere segurtasuna ziurtatzeko asmoz.



**Eskaintako bidaiak aurkibidea**

**Eskaini eta eskatzen diren bidaiak topatzeko sarbideak**

**Erreza, merkea eta segurua. Amovensen hitz gakoak**

**\* Amovensen zabalkuntza**  
**\* Sare sozialetara sarbidea**  
**\* Aplikazioei buruzko informazio gehiago**

**carpooling.es** Acceder Registrarse **Buscar viaje** **Publicar viaje**

Salamanca, Salamanca, España +20 km ↔ Madrid, España +20 km 25/05/2015

Estoy buscando un viaje

**Lunes, 25.05**

Salamanca	Torrejón de Ardoz	05:15	13 €	3 Asientos libres	Joaquín M. ★★★★★ (-)
Salamanca	Madrid	05:15	13 €	3 Asientos libres	Joaquín M. ★★★★★ (-)

Limitar búsqueda

Sólo viajes directos

Sólo viajes entre mujeres

Precio máximo: 23 €

Hora de salida: 00:00 - 24:00

Para conductores Para pasajeros Para empresas Preguntas Frecuentes

Quienes Somos Noticias Empleo Atención al Cliente Razón Social Condiciones de Uso Privacidad

Compartir coche carpooling.es - Copyright © 2001-2015 - carpooling.com GmbH

Bilatutako bidaiaren irteera eta helmuga hiriak

Lehenengo leihorearen laburpena

Iragazkiak

Bilatutako bidaien eskaintza

Laguntza atalak

**carpooling.es** Acceder Registrarse **Buscar viaje** **Publicar viaje**

Oferta el lun, 25/05/15 [Atrás a los resultados](#)

**SALAMANCA > MADRID**

Salida: 05:15

Plazas: 3

Pago: **13 €** Precio por persona **Reservar**

Pago en efectivo al realizar el viaje ¿Alguna duda?

De: 05:15 Salamanca [Show route](#)

a: 07:30 Madrid

Conductor: **Joaquín M.** ★★★★★ (0) **Gidariaren profila** Ver

Número de Móvil Validado Copia de DNI No

Actividad

Coche: Equipaje Pequeño

Detalles: Fumador/a No Precio 13 €/Persona

viaje habitual, salgo el Viernes, vuelvo el Lunes a primera hora. Salgo del Parque empresarial de San Fernando de Henares, paso por Canillejas 14:20, por Avenida América 14:30 y Moncloa 14:40 Vuelvo el Lunes a las 05:15m Salgo de Villares de la Reina, paso por Salamanca, Cea Bermúdez, Castellana y Canillejas. Si solo fuese un pasajero iría por carretera, si fuese más de uno iría por autopista.

Carpooling ekimenaren inguruko berriak

**Noticias** más...

- El carpooling sigue siendo permitido
- Tras el comunicado de Ministerio de Fomento, según "la Ley...
- carpooling.es cambia! Descubre las nuevas funciones a partir del 20 de noviembre! Antes que nada, **muchísimas gracias** a todos nuestros usuarios...
- ¡Los ganadores de Revista Internacional sobre el carpooling! ¡Gracias a todas las personas que han participado durante el...

Aukeratutako bidaiaren datuak:  
 \*Prezioa eta ordaintzeko modua  
 \*Irteera ordutegia  
 \*Gidariaren datuak  
 \*Gidariak utzitako iruzkina

**PERFIL** [Atrás](#)

Perfil público | Valoraciones | Ver todas las ofertas de este usuario

**Perfil**



**Nombre** Joaquín  
**E-mail** [Enviar mensaje](#)

**Edad**  
**Fumador/a** No  
**Ocupación**  
**Estado civil**  
**Idiomas**

Registrado desde 06/2014  
Última conexión 15/05/2015

**Vista General**

Valoraciones (0) ★★★★★

Actividad

**Vehículo**



**Fabricante del coche** Toyota  
**Modelo del coche** Aygo  
**Año de fabricación del coche** 2009

**Color del coche** Rojo  
**Aire acondicionado** Sí  
**Tipo de ruedas** Ruedas de verano (normales)  
**Km anuales recorridos** 15.000 - 20.000 Km  
**Emissiones de CO<sup>2</sup>**  
**Matrícula** (No visible)

**Verificaciones**

Número de Móvil Validado

Copia de DNI No

Facebook Connect No

Gidariaren datuak

Autoaren datuak

Erabiltzaileen irudi orokorra

Egiaztapenak

### Carpooling zenbakitan

- 1.3 milioi erabiltzaile ditu carpooling plataformak 40 herrialdeetan sakabanaturik
- 272.000 atsegite ditu facebooken
- Twitterren berriz 3228 jarraitzaile eta 1393 txio publikatuta.

## Konparaketa taula

3 plataformak konparatzeko taula, beraien ezaugarri garrantzitsuenak aipatuz

1.Taula “konparaketa taula”

	Amovens	Blablacar	Carpooling
Widget/Partner/Area de afiliados (sarbidea beste orrialdeetatik)	✓	✓	✓
Emakumeak bakarrik bidaiatzeko aukera		✓	✓
Iragazkiak		✓	✓
Linean ordainketa		✓	✓
Erreserba linean		✓	✓
Alerta jartzeko aukera	✓	✓	
Ekitaldiak	✓		
Sare sozialak	✓	✓	✓
Jabetzaz aldatu	✓		✓
Ezereztatzeko politika araua		✓	✓
Komisioa		✓	✓
Mugikorrentzat aplikazioa	✓	✓	✓

## 4. ALDERDI PRAKTIKOA

### Galdetegia osatzeko metodologia

Galdetegia sortzearen arrazoia autoa partekatzeko ekimenen inguruan jendearen ezagutza noraino iristen den ezagutzea izan da. Horretarako galdetegi bat prestatu nuen, informazio hori eskuratzeko asmoz.

Galdetegia JotForm web orrialdean sortu da, berau eskaintzen duen doako bertsioa erabiliz. JotForm ataria ([www.JotForm.com](http://www.JotForm.com)), galdetegiak eratzeko sarean dagoen orrialde erabilienetariko bat da. Ikerketa batean behar diren beharrekin sobera betetzen du erreminta honek (Casto Luna & Virgilio Méndez, 2010). Zehazki WYSIWYG (What You See Is What You Get) teknologia erabiltzen du, hau da, momentuan, erantzunak jaso ahala, hauek ikusteko aukera eskaintzen du, gerora aztertuko diren kalkulu-orri gisako baten. Galdetegia gaztelaniaz egitea erabaki zen, publiko zabalago batengana heltzeko asmoarekin. Helburua, galdetegi laburra eta zuzena egitea izan zen, ahalik eta erantzun gehien lortzeko asmoz.

19 galdera prestatu nituen erantzuteko, baina hau laburtzeko asmoz galdera batzuk baldintzatuak jarri nituen. Segun erantzuna zein zen, galdetegiak bide bat ala bestea hartzen zuen. Erantzun bat ala bestea jarri, tokatzen zitzaion galderara salto egiten zuen, tarteko galderak saltatuz eta galdetegia arindu asmoz. Horrela, erantzuten ari zen pertsonak ez zituen galdera guztiak irakurri behar.

Lehenengo baldintzazko galdera autoa partekatzeko ekimenik ezagutzen zuten ala ez zen. Erantzunaren arabera batzuek zein plataforma ezagutzen zituzten zeukaten hurrengo galdera eta besteek berriz, hau da ezagutzen ez zituztenek, ea bidaia luzeetan zer garraio mota erabiltzen duten. Honela, galdetegia asko arintzen da eta galdetegia erdizka uzteko aukera asko murrizten da, erantzun kopurua igoz.

Behin galdetegia prestatuta tutoreari erakutsi nion, bere iritzia eman eta egin beharreko zuzenketak egiteko. Hau eginda, galdetegia zabaltzeari ekin nion. Hau egin aurretik galdetegia mugikorretan irekitzeko prestatu zen, JotFormek eskaintzen duen aukera bati esker.

Galdetegia zabaltzeko gehienbat sare sozialak eta WhatsApp aplikazioa ibili ziren. Baina mezu elektronikoen bidez ere zabaltzen saiatu nintzen.

Sare sozialetan eraginkorra Facebook-eko taldeetan lotura ezartzea izan zen. Pare bat lagun talde dauzkat eta hauetan lotura itsatsi eta testu labur bat idatzi nuen, galdetegia zertaz zihoan azalduz eta beraien parte hartzea eskatuz. Hauexek dira erabili nituen testu laburrak:

*“Kaixo! Gradu amaierako lanerako informazioa lortu asmoz galdetegi bat prestatu dut, kotxea partekatzeko dauden plataforma ezberdinen inguruan. Bi minutuan erantzun duzue! Mila esker erantzuteagatik”*

*“Estoy haciendo mi trabajo fin de grado y necesito que contestéis un pequeño cuestionario sobre el uso de plataformas para compartir coche. No tardaréis nada, 2mins. Gracias por colaborar”*

Esan bezala, WhatsApp aplikazioa ere erabili nuen. Hemen ere ditudan taldeetara bidali nuen galdetegia. Klaseko taldea, lehengusua, koadrilakoa, dantza taldekoa ...

Azkenik lagun bati esker Mondragon Unibertsitateko mezu elektronikoen bidez ere zabaltzea lortu nuen. Goian idatzitako bi testu hauek eta lotura itsatsita zabaldu genuen mezua bertako ikasle guztiei, mezu elektronikoko gai bazela *“kotxea partekatzeko plataformarik ezagutzen duzu?”* jarrita.

Galdetegiko lotura zabaldu eta erantzuteko gonbita egin ostean erantzunak iristen joan ziren. Lehenengo hiru egunetan 100 erantzun baino gehiago lortu nituen. Baina nola doako bertsioa zen, 100 erantzunetik gora ordaindu behar den bertsio bat erabiltzeko esaten du JotForm plataformak. Hori dela eta, 119 mezu lortu ostean lotura itxi eta erantzun kopuru horiekin lanean hasia erabaki nuen, autoa partekatzeko ekimenen inguruan 119 pertsonak zer dakiten ikusteko gogoz.


2.Taula “Egindako galdetegiaren laburpena”

<b>Egindako galdetegiaren laburpena</b>
<b>Galdera orokorrak</b>
Adina Sexua Ikasketak Autoa partekatzeko plataformarik ezagutzen duzu? Zein plataforma ezagutzen dituzu? Zein plataforma erabili duzu?
<b>Horrelako plataformarik ezagutzen edo erabili ez dutenentzat galderak</b>
Zer garraio mota erabiltzen duzu bidaia luzeetarako? (3-4 ordu baino gehiago) Zergatik ez duzu erabili? Pertsona ezagun batekin joanda zure erantzuna aldatuko litzateke?
<b>Autoa partekatzeko ekimenen bat erabili dutenentzako galdera</b>
Nola ezagutu zenituen gisa honetako ekimenak Zer maiztasunekin erabiltzen dituzu zerbitzuok? Zer bidaia motatarako erabiltzen dituzu plataforma hauek? Ordainketa motaren inguruan, zer nahiago duzu? Zer arrazoiak bultzatzen zaituzte ekimen hauetan parte hartzera? Ordenatu erantzunak zure lehentasunen arabera. Dirua, Denbora, Ekologia eta Lagun joatea Zer erabiltzaile mota zara?
<b>Gidariantzat galderak</b>
Zertan oinarritzen zara bidaiariak aukeratzeko orduan? Baloraziorik egiten duzu bidaia ostean?
<b>Bidaiariantzat galdera</b>
Zertan oinarritzen zara gidaria/bidaia aukeratzeko orduan?



### 1. Adierazpen grafikoa "Adina"


20 baino gutxiago    20-23 artean    24-29 artean    30etik gora



Adinari dagokionez lortutako erantzunen %80a 20 urtetik 29 urteren artean kokatzen da, hauetatik erdia baino gehiago 23 urtetik behera. Sexuari lotuta berriz lortutako erantzunen bi heren emakumezkoenak izan dira, 80 erantzun zehazki.


### 2. Adierazpen grafikoa "Sexua"

Emakumezkoa    Gizonezkoa



Ikasketen inguruan gehien nabarmendu dena, %83arekin, unibertsitate ikasketak izan dira, formazio zikloak eta batxilergoak jarraitzen diotelarik %9 eta %5arekin hurrenez hurren.


3. Adierazpen grafikoa “Autoa partekatzeko plataformarik ezagutzen du?”, “ Zein plataforma ezagutzen da gehien?”



Galdera hau izan da galdetegiaren bi norabideak markatu dituenak. Lortutako erantzunen %75ak baino gehiagok ezagutzen du autoa partekatzeko erabiltzen den ekimeneen bat, kontrariak %25ak ez du sekula eduki honelako ekimeneen berri. Grafikoan argi ikusten den bezala, gisa honetako plataformaren bat ezagutzen duten guztiek ezagutzen dute BlaBlacar plataforma, 91 pertsonak. Hauetako batzuk gainera, aipatutako plataformaz aparte Amovens edo Carpooling ere ezagutzen dituzte. Baina azken hauek BlaBlacarren oso azpitik geratzen diren zifrak dituzte. Amovens %9ak

ezagutzen du, 8 pertsonak zehazki eta Carpooling edo ViajamosJuntos ekimenak berriz 4 pertsonak baino ez dituzte ezagutzen.

4. Adierazpen grafikoa “Erabili du plataformarik?”, “Zein?”, “Zer garraio mota erabiltzen duzu bidaia luzeetarako?”



Grafiko honek datu asko azaltzen ditu. Lehenik eta behin erdian dagoen zirkunferentzia azalduko da.

Bertan argi ikusten den moduan, lortutako erantzunen %81ak ez du horrelako plataformarik erabili. %81 hori gisa honetako plataformarik ezagutzen ez dutenen eta ezagutu bai baina erabili ez dutenen artean osatzen da. Aldiz ia %20ak noizbait partekatu du bere bidaia horrelako zerbitzuren bat erabiliz.

Eskuineko zirkunferentzian zentratuz, ikus daiteke %19 horren ia gehiengoak, %18ak, BlaBlacar plataforma ezagutzen duela, hauetatik %3ak Amovens ere ezagutzen dutelarik. Aldiz, %1tak bakarrik du Compartir plataformaren berri.


Autoa partekatzeko ekimenik erabili ez dutenei zer garraio mota erabiltzen duten galdetuta %36ak ibilgailu propioa erabiltzen du 3 edo 4 orduko bidaia egiteko, ezkerreko zirkunferentzian ikusten den moduan. Ia %50ak garraio publikoa erabiltzen du eta %17ak hegazkina aukeratzen du bidaia luzeak egiteko.

Horrelako plataformarik erabili ez dutenen adarrekoiei, plataforma ez erabiltzearen zergatiaz galdetu zaie. %32ak horrelako orrialdeak edo zerbitzuak ez ezagutzeagatik dela erantzun du, 27%ak aldiz ez dutelako sarritan bidaiatzen. %15ak ezezagunekin bidaiatzeak mesfidantza sortzen diolako ez dutela erabili erantzun zuen. Aldiz, %17ak beraien beharrei egokitzen zen bidaiarik aurkitu ez dutelako. Hau da, ordutegira edo preziora egokitzen ez zelako bidaien eskaintza. %9ak beste zergati batzuk dituzte horrelako zerbitzuak ez erabiltzeko.

Erabili ez dutenei egindako azken galdera pertsona ezagun batekin joanda ea erantzuna aldatuko luketen ala ez izan zen. %56ak baietz erantzun du, pertsona ezagun batekin partekatuz gero bidaia erabiliko luketela gisa honetako plataforma. Aldiz %34ak ez lukeela erantzuna aldatuko jarri zuen eta %13ak ez dakiela.

Jarraian plataforma erabili dutenen erantzunak aztertuko dira, nola ezagutu zituzten gisa honetako ekimenak da lehenengo galdera.

5. Adierazpen grafikoa” Nola ezagutu zenituen gisa honetako ekimenak?”




Erabiltzaileen erdiek ahoz aho izan dute horrelako ekimenen berri eta ia erdiek interneten bidez. %5ak bakarrik ezagutu ditu komunikabide tradizionalen bidez.

Gehiengoak, %91ak tarteka erabiltzen du gisa honetako ekimenen bat, %9ak bakarrik erabiltzen du hilean behin edo birritan.

Hurrengo galdera izan da atal praktikoaren bigarren zatian egin dudan planteamenduaren abiapuntua.

6.Adierazpen grafikoa “ Zer bidaia motarako erabiltzen dira plataforma hauek?”



Argi ikusten da gehiago zabal batek, %96ak, bidaia luzeak edo 100km-tik gorako bidaiak egiteko erabiltzen dituztela autoa partekatzeko ekimenak. Lortutako erantzunetatik pertsona batek bakarrik jarri du bidaia laburrak egiteko erabiltzen duela. Beraz ikus daitekeen moduan bidaia motzetarako ekimen hauek ez dira erabiltzen. Hor hutsune bat dago, eta lehen aipatu moduan, bigarren atalean egingo den planteamendua bidaia laburrak egiteko zuzendu nahi da.

Ordainketa motari buruz galdetu ostean ia %60ak eskudirutan ordaintzea nahiago dutela erantzun dute,aldiz %18ak nahiago du online ordaindu. Gainerakoek berdinez zaiela erantzun dute.

Segidan dagoen taula ekimenean parte hartzearen arrazoiak ordenatzeko eskatzen den galderatik ateratako datuekin eginda dago. Bertan Dirua, Denbora, Ekologia eta lagun joatea hitzak azaltzen ziren eta erantzule bakoitzak bere lehentasunen arabera ordenatu behar zituen arrazoi hauek.

Taula osatzeko postu bakoitzari puntuazio bat eman zaio, horrela puntuazio altuena duena izango da garrantzi gehien duen arrazoi erantzuleentzat.

Lehenengo postuan egoteagatik lau puntu, bigarrenean hiru puntu, hirugarren azaltzeagatik bi eta azkenekoan egoteagatik puntu bakarra eskuratuko du. Gelaxka bakoitzean postu bakoitzean hitz hori zenbat aldiz agertzen den bider dagokion puntuak agertzen dira. Puntuaketa honela geratu da lortutako 19 erantzunak landu ondoren:

### 3.Taula “Autoa partekatzeko arrazoiaren puntuaketa”


	1.postua(4)	2.postua(3)	3.postua(2)	4.postua(1)	Puntuak Guztira
Dirua	15x4p=60	4x3p=12			72
Denbora	4x4p=16	13x3p=39	1x2p=2	1x1p=1	58
Ekologia		2x3p=6	9x2p=18	8x1p=8	32
Lagun joatea			9x2p=18	10x1p=10	28

Ekimen hauek erabiltzeko arrazoi garrantzitsuena dirua da 72 punturekin. Pisuzko arrazoi hau erantzun dutenetatik 15ek lehenengo postuan jarri dute. Honen segidan denbora aurrezteko jarri dute bigarren postuan, 58 puntu lortuta. Ekologiak eta lagun joateak puntuazio baxuagoa daukate, izan ere aurreneko biek puntuen 2/3 lortu dituzte eta 1/3 azken biak batera.

Zer erabiltzaile mota diren galdetu ostean gehiengoak bidaiariak bezala bidaiatzen dutela erantzun dute, 22tik 18k hain zuzen ere. Beste hiruk bai gidari bezala bai bidaiari bezala erabili dutela esan dute aldiz bat bakarra da gidaria dena.

bidaiaria aukeratzeko garaian gidariak zertan oinarritzen diren galdetuta hau erantzun dute:


### 7. Adierazpen grafikoa "Bidaia aukeratzeko kontuan hartzen dutena"



Gidari erdiak ez dira zehazki ezertan oinarritzen bidaiaria aukeratzekoan, aldiz laurden batek plataformako balorapenak kontuan hartzen ditu eta beste laurdenak mezuetan eta orrialdean dituen balorazioekin transmititutako konfiantza hartzen du kontuan.

Bukatzeko, bidaiariei ea zer den kontuan hartzen dutena gidaria aukeratzeko orduan galdetu zaie.


### 8. Adierazpen grafikoa "Gidaria aukeratzeko orduan kontuan hartzen dutena"



Ia erdiek bidaiaren prezioa hartzen dute kontuan eta %41ak web orrialdean dituen balorazioak. Gidariaren esperientzia eta ezarritako lehentasunak, hau da erre daitekeen ala ez, maskota eraman daitekeen... %5eko portzentajea lortu dute eta beste %5ak ez daki zer den kontuan hartzen duena gidaria aukeratzeko garaian.

## Ondorioak labur jarrita

9. Adierazpen grafikoa “ Autoa partekatzeko plataforma ezagutzen ez dutenek normalean zer garraio mota erabiltzen dute bidaiatzeko?”



- 119 erantzunetatik 28k ez dute horrelako ekimenik ezagutzen. Hauetatik %61ek normalean ibilgailu pribatua erabiltzen du 3-4 orduko bidaiak egiteko. Baliteke hau izatea plataforma hauek ez ezagutzearen arrazoietakoa bat.
- Autoa partekatzeko ekimenik erabili ez dutenen erdia ausartuko litzateke probatzera ezagun batekin bidaiatuko balukete.
- Ezezagunekin bidaiatzeak mesfidantza sortzen dietenen %75ak ezagun batekin batera bidaiatuz gero iritzia aldatuko luke.

Azkenik aipatu Compartir ekimena erabili duen pertsona horrek bidaiak laburrak egiten dituela normalean. Begi bistakoa da lotura hau, izan ere ekimen hau lanera egiten diren joan etorriak partekatzeko erabiltzen baita gehienbat. Ekimen hau oraindik ez dago, ordea, oso zabaldua, nahiz pixkanaka bere orrialdean sarrera kopurua goraka doan.



Lehen aipatu moduan, bidaia laburrak egiteko orduan plataforma hauen erabileran hutsunea nabarmena da, 6.grafikoan agertzen den bezala. Hori dela eta, hurrengo atalean Goizuetan bidaia laburrak partekatzeko beharra dagoen ala ez aztertuko da eta beharra egotekotan nolako plataforma ezarriko litzatekeen azalduko da.

## Goizuetako ikerketa

Atal honetan Goizuetan, nire herrian, Nafarroa ipar-mendebaldean kokatuta dagoenean egindako ikerketa azalduko da, autoa partekatzeko beharrik badagoen ala ez jakiteko helburuarekin egin da berau.

Ikerketaren metodologia eta lortutako datuak azaldu baino lehen, Goizueta herriari buruz pare bat argibide emango ditut.

Goizueta Nafarroako mendialdean kokatuta dago. Gertuen daukan herria, Leitza 20km-tara aurkitzen da, baina goizuetarrak gehienbat Gipuzkoa aldera mugitzen dira, Gipuzkoan hurbilen dagoen herria Hernani da, 25km-etara. Goizuetarrek autoa beharrezkoa dute egunerokotasunean, irakasle batzuk eta eraikuntzako langile batzuk izan ezik, beste guztiek herritik kanpo egiten baitute lan. Egoera hau jakinda eta Goizuetako udaletik lortutako datua ikusirik, 735 biztanle dituen herri batean 777 ibilgailu daudela, ikerketa bat burutzea erabaki zen, Goizuetako joan etorriak aztertu eta autoa partekatzeko ekimenik behar den ala ez jakiteko asmoz. Ikerketa hau burutzeko, honako metodologia gauzatu da.

Ikerketa honekin joan etorrien kopuruaz aparte, datu hau Nafarroako web orrialdeko sustapen atalean aurki daiteke, bidaia horiek zenbateko okupazioarekin egiten ziren jakin nahi zen. Horretarako egun batez Goizueta Hernani errepidean, NA-4150, zenbat joan etorri egin ziren eta zenbateko okupazioarekin aztertu zen, zehazki 9 orduz. Aipatu beharra dago, hauetako ordu bat Goizuetako Andres Narbarte "Xalto"ko ikasleek aztertu zutela.

9 orduz egon ondoren honako datu hauek lortu ziren:


#### 4.Taula “ Joan etorrien taula 1.0”

	Joan etorriak				Pertsonak
	Banaka	Binaka	Hirunaka	Guztira	Guztira
Hernanitik Goizuetara	78	33	8	119	168
Goizuetatik Hernanira	111	34	7	152	200


Datu hauek landuz joan etorri hauek okupazioaren batez bestekoa atera da. Hernanitik Goizuetarako bidaietan 1,4eko okupazioa dute autoek batez beste, aldiz Goizuetatik ateratzen diren autoek dezimal bat gutxiagokoa, 1,3koa. Beraz, orokorrean datu guztiak hartuta 1.35eko okupazio tasa geratzen da. Datu hauek estatuko batz bestekoaren azpitik geratzen dira, BlaBlaCar-ren datuen arabera 1,7koa baita estatukoa.

Segidan dauden grafikoek joan etorri hauek zer ordutan egin ziren irudikatzen dute, ondoren hauek sortzen dituzten hainbat kutsadura datu eta diru gastu aipatuko dira.

#### 10. Adierazpen grafikoa “ Goizuetatik Hernanira egin diren desplazamenduak



## 11. Adierazpen grafikoa "Hernanitik Goizuetara egin diren desplazamenduak"



Joan etorrien kopurua jakin da eta zenbateko okupazioarekin egiten diren batzaz beste ikusita, honako zifra hauek atera dira. Zifra hauek lortzeko [www.guiarepsol.com/es/](http://www.guiarepsol.com/es/) eta <http://arboliza.es/compensar-co2/calculo-co2.html> orrialdeak erabili dira.

Oinarritzat hartu diren datuak:

-**100kmko 6 litro** erretzen dituztenen diesel autoekin kalkulatu dira ondorengo datuak, erregaiaren prezioa **1,19€/litroko** hartuta eta batzaz beste **60km** egiten direla kalkulaturik, 30 joaten eta beste hainbeste etortzen. Distantzia hau Goizuetatik Astigarragara bezala izango litzateke.

Aztertutako orduetan 271 bidaia egin direla ikusirik, 60km egiten direla batzaz beste erabakita, eta kilometro bakoitzeko diesel motorra duen auto batek 0,16CO<sub>2</sub> kg isurtzen dituela jakinda, auto bakoitzak egunean NA-4150 errepidean 2601,6 CO<sub>2</sub> kg zifrara iritsiko zen, urtean 572.352kg izango liratekeelarik, 220 lanegunez biderkatuz gero.

Gasolioari buruzko datuak aztertuz gero, jakinik diesel motordun autoak 0.06l kontsumitzen duela kilometro bakoitzean eta lehen esan bezala 60km egiten direla batzaz beste erabakita, egunean 975,6l gasolio gastatzen direla ikusten da 271 joan etorri horietan, auto bakoitzak 3,6l. Zifra hau lehen aipatutako prezioarekin biderkatuz

gero, 1160€tara igotzen da NA-5041 errepidean egiten den gastua joan etorri guztiak batuz, auto bakoitzaren gastua 4,28€ delarik.

4.28€/joan etorriko horiek urtean 220 joan etorri biderkatuz gero, hau da gutxi gora beherako lan egunez, 942.48€taraino heltzen da. Autoa partekatuz gero ordea, zifra hori erdira jaitsiko litzateke, 471,24€raino.

Baina autoa partekatzen ez dutenen erdiak partekatzea lortuz gero, joan etorrien kopurua 213ra jaitsiko litzateke, 58 gutxiago. Honekin batera, karbono dioxidoaren isurketara ere 2044,8kgra jaitsiko litzateke eta 766,8litro gasoliora, hau da 912,5€ra.

Gainera, autoen batuz besteko okupazioa 1,72ra igoko litzateke, estatuko batuz bestekoarekin berdinduz.

Lehen jarritako taula honela geratuko litzateke:

5.Taula "Joan etorrien taula 2.0"

	Joan etorriak				Pertsonak
	Banaka	Binaka	Hirunaka	Guztira	Guztira
Hernanitik Goizuetara	36	54	8	98	168
Goizuetatik Hernanira	57	51	7	115	200

Beraz, argi ikusten da Goizuetan autoa partekatzeko ekimen baten beharra badagoela eta hurrengo atalean Goizuetan zer nolako ekimena ezarriko litzatekeen azalduko da, bertako ezaugarriak kontuan izanik.

Goizueta herriak dituen bereizgarriak azaldu direnez aurreko atalean, puntu hau nolako ekimena planteatuko litzatekeen azaltzera dedikatuko da.

Proiektu honetan zehar estatu mailako hiru ekimen garrantzitsu aztertu eta azaldu dira, BlaBlaCar, Amovens eta Carpooling hurrenez hurren. Hauen ezaugarriak jakinik, Goizuetako herriak dituen ezaugarriekin bat egiten duen ekimena Amovens dela esan daiteke. Agian plataforma berri bat sortzea originalagoa izango litzatekeen, baina gero errealitatean ezartzeko garaian, sortutako bat erabiltzea errazagoa izango da, berri bat hasieratik sortzen hastea baino. Segidan azalduko dira aukeraketa honen arrazoiak:

Lehenik eta behin esan beharra dago, aztertutako hiru plataformetan komisorik ez duen bakarra dela. Egia da ezin dela online ordaindu, baina egindako galdetegian ikusi denez, gehienek nahiago dute eskudirutan ordaindu. Plataforma bera eta baita daukan aplikazioa ere, oso sinpleak eta erabil errazak dira. Horrela, teknologia berriak erabiltzea errazago izango da eta ez da hauen zailtasunagatik inor partekatu gabe geratuko.

Ekitaldiak sortzekoa aukera dago. Ezaugarri hau oso garrantzitsua da Goizueta bezalako herri baterako, izan ere hileroko ekintza ezberdinak daude eta jende asko mugitzen dute. Honek aukera ematen du kanpokoak Goizuetara etortzen direnean autoa partekatuz etortzeko, trafikoa gutxituz eta herrian auto pilaketa saihestuz. Goizuetako jaiak direla, Feri eguna dela.... Ekitaldi guzti hauek sare sozialen bitartez zabaltzen dira gehienbat, erreminta oso baliagarriak hauexek. Hauetan Amovensen sortutako ekitaldiaren sarbidea jartzea izango litzateke autoa partekatuz etortzeko eskaera egiteko modurik onena. Gainera, ekitaldiak sortzea ez da ezer kostatzen, Amovens ekimenak duen doako erreminta ba da.

Honetaz aparte, eta hau izan da batez ere ekimen hau aukeratzeko puntua, Widget-ak erabiltzeko aukera ematen du Amovensek. Widget-ak aurretik azaldu moduan, aplikazio txiki batzuk dira eta bere helburura sarbide errez bat ematea da Horrela, udalak bere web orrialdean Amovensen bidez autoa partekatzeko ekimeneko leihora sarbidea jar dezake. Sarbide hau lortzeko bi modu daude, bata toki widgeta erabiltzea edota orri pertsonalizatu bat sortzea.

**Toki widget-a** erabiltzea doakoa da. Widget mota honetan leku baten izena eta bere helbide zehatza sartu behar dira. Hau normalki leku zehatz batzuetara iristeko erabiltzen da. Adb.: CAF Irun, izena jarriz eta Helbide bezala Anaka kalea, 38. Baina Herri baterako ere erabil daiteke, argazkian ikusten den bezala.

### Crea tu propio widget

Y promociona el coche compartido en tu propia web.

Introduce el nombre y la dirección de tu ubicación, y obtendrás tu propio widget en cuestión de segundos.

Nombre de ubicación

Dirección

### Ejemplo del widget



Goizuetako kasuan honela geratuko litzateke. Behin hau sortuta, lotura bat ematen du Amovensek. Lotura hori, nahi den web orrialdean, sare sozialetan... itsatsi behar da, sarbide horren bidez goian dagoen leihora iritsiko garelarik.

**Amovens pro zerbitzua.** Zerbitzu hau, enpresa, administrazio edota unibertsitateei zuzenduta dago. Amovens prok bi plan eskaintzen ditu, bata estandarra eta bestea *Premiuma*.

*Premiuma* 10.000€tik gora kostatzen da, garestiegia, baina estandarra Goizuetan ezarri daiteke, hilean 199€ko gastua dauka.

Plan estandarra ondorengoan datza: Udalak plan hori kontratatuko luke eta ordainetan, Amovensek orrialde pertsonalizatu bat sortzen du. Orrialde horretan Goizuetako armarría, herriari buruzko datu batzuk... ezar daitezke. Orri hau, toki widgetaren antzekoa izango da, hau da Goizuetatik eta Goizuetara bidaiak eskaintzeko lekua, baina hain sinplea izan beharrean, pertsonalizatuagoa. Honetaz aparte, lehen aipatutako widget bat lortzen da, sarbide zuzena izateko aukera alegia, lotura hau ere nahi den orrian itsatsi daitekeelarik. Orri honen mantentzea eta gastu informatikoak Amovensen esku geratzen dira.

## 5.ONDORIOAK

Ekonomia kolaboratiboa, kontsumo kolaboratiboa oinarri duen ekonomia modu berri bat da, XX.mendeko hiperkontsumotik urrun geratzen dena. Indar handia hartzen ari da eta motor bultzatzaileenak gaur egun pairatzen ari garen krisia eta teknologiaren berrikuntza direla esan daiteke. Izan ere, aipatutako adibideak gehiengo zabal batek erabili edo entzun ditu, bai oporretan joatean edota musika entzuteko garaian bertan.

Nahiz Car sharing eta Carpoolingek, biek duten helburu errepedeetako auto kopurua eta erabiltzaileen gastuak murriztea, batean autoa bera partekatzen da bestean egindako bidaia partekatzen den heinean.

Galdetegiaren ondorio bezala aipa daiteke BlaBlaCar dela ekimenik ezagunena nahiz eta gehiengo zabal batek ez duen sekula horrelako ekimenik erabili. Baina erabili dutenek bidaia luzeak egiteko erabiltzen dute, bidaia motzetarako inork gutxik partekatzen du bidaia beste norbaitekin, beti ere galdetegia erantzun dutenen artean.

Azken atalean Goizuetan egindako ikerketa azaldu da. Hemen esan okupazio tasa oso baxua topatu dela, 1.35ekoa. Beraz, lanean aipatu moduan, horrelako ekimen bat ongi etorriko litzateke Goizuetan, gutxienez estatuko batz besteko okupazio mailara heltzeko. Ekimen egokiena Amovens izango litzatekeela ondorioztatu da, izan ere bere funtzionamendua oso sinplea da eta ekitaldiak sortzeko aukera dago, herri horretarako erreminta hori ongi etorriko delarik. Gainera ez dauka komisiorik eta herri mailan nola funtzionatzen duen frogatzeko doako erreminta den widget-a erabil daiteke.

## Iturri bibliografikoak

- Botsman, R. (2010). *Ted talks*. The case for collaborative consumption: [http://www.ted.com/talks/lang/es/rachel\\_botsman\\_the\\_case\\_for\\_collaborative\\_consumption](http://www.ted.com/talks/lang/es/rachel_botsman_the_case_for_collaborative_consumption) helbidetik eskuratua
- Botsman, R., & Rogers, R. (2010). *What's Mine Is Yours: The rise of Collaborative Consumption*. Haper Business.
- Cañigüeral, A. (2014). *Vivir mejor con menos*. Conecta.
- Casto Luna, M. M., & Virgilio Méndez, V. H. (2010). Tutoría online: Jotform, instrumento útil para el apoyo de la acción tutorial. M. E. Prieto, J. M. Doderó, & D. O. Villegas en, *Recursos Digitales para la educación y cultura* (or. 65-72). Cadiz: Volumen KANBAL.
- Costa, G. (2015). ¿Por qué el consumo colaborativo es fuente de ventajas competitivas? *Cinco Días* .
- Dans, D. (2015). *Xombit.com*. <http://xombit.com/2015/02/consumo-colaborativo-internet-tecnologias-moviles> helbidetik eskuratua
- Euskadi Up*. (2014). Eskuratze-eguna: 2015. Iturria: Grupo Spri: <http://www.spri.eus/eu/blog/crowfundinga-konfianza-kontua-da>
- Euskadi Up*. (2015). Eskuratze-eguna: 2015. Iturria: Grupo Spri: <http://www.spri.eus/eu/blog/lanzosgregoriolopeztrivino>
- Euskadi Up*. (2015.eko otsailak 10). Eskuratze-eguna: 2015.eko martxoak. Iturria: Grupo Spri: <http://www.spri.eus/eu/blog/emprendimiento-espanol-appkideak-perdemos-medio-ano-de-nuestra-vida-buscando-objetos-perdidos>
- Galán, R. (2015). Cómo ha capeado Blablacar el temporal de Uber. *Emprendedores* .
- Gallego Pérez, J. (2009). Do It Yourself, cultura y tecnología. *Icono14* (13), 278-291.
- Goetz, A., Van De Vijver, E., Van Malderen, L., Jourquin, B., Thomas, I., Verhetsel, A., et al. (2012). What determines carpooling to workplaces in Belgium: location, organisation, or promotion? *Journal of Transport Geography* (or. 77-86). en Elsevier.
- Meijkamp, R. (1998). Changing consumer behaviour though eco-efficient services: An empirical study of car sharing in The Netherlands. En *Business Strategy and the Environment* (págs. 234-244). The Netherlands.
- Open Knowledge*. (d.g.). Eskuratze-eguna: 2015. Iturria: <http://opendefinition.org/od/>



Peréz, R., & Solero. (2014). *El 'crowdfunding' español prepara una contrapropuesta a la ley de financiación*. Eskuratzte-eguna: 2015. Iturria: El Economista:  
<http://www.eleconomista.es/emprendedores-innova/noticias/5646108/03/14/El-crowdfunding-espanol-prepara-una-contrapropuesta-a-la-ley-de-financiacion.html#.Kku8QSJLMGomXAb>

Press, E. (2015). *El economista*. Eskuratzte-eguna: 2015. Iturria:  
<http://www.eleconomista.es/transportes/noticias/6632700/04/15/BlaBlaCar-adquiere-Carpoolingcom-y-ya-suma-los-20-millones-de-usuarios.html#.Kku8F4gUngolWEg>

Wagner, C., & Shahenn, S. (1998). *Car sharing and mobility management: facing new challenges with technology and innovative business planning*.

Walsh, B. (2011). Today's Smart Choice: Don't Own. Share. *Time* .

Widget hitzaren definizioa Wikipedia orrian: <https://es.wikipedia.org/wiki/Widget>

# Eranskinak

## Udalari eskaria

Goizuetako udalari sartu zitzaion eskaria da behean dagoen dokumentua. Bertan nire proiektua aztertu eta eztabaidatzeko eskatzen diet udal kideei.

GOIZUETAKO UDALA  
Sarrera Erregistroa

1.3 UDALA

2015-6-29 12:24  
Agiri Zkia.: 2015/0001088

**IZEN-ABIZENAK:**

Nombre y apellidos Maria Escudero

**N.A.N. Zbkia.**

Nº D.N.I. 44642588W

**HELBIDEA**

Dirección Santa Maria 17

**HERRIA**

Población Gorretz

**POSTA KODEA**

Código Postal 31.754

**TELEFONOA**

948-514249

**AZALPENA**

Expone

Eskari honen bidez, nire gradu amaierako lanaren buradore bat entregatzen dut, nik lanean proposatutako ekimena aztertu eta eztabaida dezaten Goizuetako udal kideek. Lanarekin batera gutun bat txertatu dut azalpen gehiago ematu asmoz. Hala ere, lana bukatu bezain laister kopia bat ekariko dut udalera.


**ESKATZEN DUT**

Solicita

Nik lanean proposatutako ekimena aztertu eta eztabaidatzea.

Goizuetan, 2015eko ekainak 29.

Fdo:



Espainia mailan bidaiak partekatzeko existitzen diren ekimen ezberdinak ikertzea da Gradu Amaierako Lan honen helburua. Galdetegi honekin zerbitzu horiek erabiltzearen arrazoi nagusiak zeintzuk diren jakin nahi da. Bost minutu baino gutxiago behar dira galdera guztiak erantzuteko. Eskerrik asko parte hartzeagatik!

- **Adina**
- **Sexua**
- **Ikasketak**
  - Unibertsitate ikasketak edo baliokideak
  - Formazio zikloak (goi eta erdi maila)
  - Batxilergoa
  - Bigarren Hezkuntza
- **Plataforma horietako baten bat ezagutzen duzu? Amovens, Blablacar, Carpooling, Carpling**
- **Hurrengo plataformetatik zeintzuk ezagutzen dituzu?**
  - Amovens
  - BlaBlaCar
  - BusVao
  - Carpling
  - Carpooling
  - Compartir
  - Roadsharing
  - Shareling
  - ViajamosJuntos
- **Baten bat erabili duzu? Adierazi baiezkoak.**
  - Amovens
  - BlaBlaCar
  - BusVao

- Carpling
  - Carpooling
  - Compartir
  - Roadsharing
  - Shareling
  - ViajamosJuntos
- **Nola ezagutu zenituen?**
- Internet (Sare Sozialak)
  - Komunikabide tradizionalak (Telebista, irratia, prentsa..)
  - Ahoz-ahoz
- **Zer garraio mota erabiltzen duzu bidaia luzeetarako? (3-4 ordu baino gehiago)**
- Ibilgailu propioa
  - Trena
  - Autobusa
  - Hegazkina
- **Ezetz erantzun baduzu, zergatik?**
- Nire beharrei erantzuten dien bidaiarik aurkitu ez dudalako (ordutegia, prezioa, topalekua...)
  - Ezegun batekin bidaiatzearen mesfidantzagatik
  - Ez dut asko bidaiatzen
  - Plataforma hauek ez ditut ezagutzen
- **Pertsona ezagun batekin joanda zure erantzuna aldatuko zen?**
- Bai
  - Ez
- **Zer maiztasunekin erabiltzen dituzu zerbitzuok?**
- Egunero

- Astero
  - Hilean behin edo birritan
  - Noizbehinka
- **Zer bidai motarako erabiltzen dituzu plataforma hauek?**
- Bidaia laburrak (50 km inguru)
  - 100-300 km arteko bidaiak
  - Bidaia luzeak (300 km baino gehiago)
- **Ordainketa motaren inguruan, zein nahiago duzu?**
- Online ordainketa
  - Esku-dirua
  - Berdin zait
- **Zer erabiltzaile mota zara?**
- Gidaria
  - Bidaiaria
  - Biak
- **Zer arrazoiek bultzatzen zaituzte ekimen hauetan parte hartzera? Ordenatu erantzunak zure lehentasunen arabera.**
- Dirua aurrezte
  - Denbora aurrezte
  - Bakarrik ez bidaiatzea
  - Arrazoi ekologikoak
- **GIDARIENTZAT GALDERAK:**
- **Zertan oinarritzen zara bidaiaria aukeratzeko?**
- Sexua
  - Adina

- Erabiltzailearen balorazioa web orrian
  - Plataforman duen esperientzia
  - Berdin zait
  - Besteak
- **Bidaia amaitzean, baloraziorik idazten diezu bidaiariei?**
- Bai, beti
  - Batzuetan
  - Inoiz ez
- **BIDAIARIARENTZAT**
- **Zertan oinarritzen zara bidaiak aukeratzeko orduan?**
- Gidariaren esperientzia
  - Ibilgailuaren modeloa (erosotasuna, potentzia, gama...)
  - Prezioa
  - Gidariaren lehentasunak (maskotak, musika, erre ahal izatea...)
  - Beste erabiltzaileen balorazio eta iritziak
  - Adina
  - Sexua
  - Besteak